

KONTRABANDOAREN BILAKAERA BI NAFARROEN ARTEAN (1936-1961)



Gradu Amaierako Lana

Elixabet Etchandy
Tutorea: Unai Belaustegi Bedialauneta
Historia Gradua
2021-2022 ikasturtea
Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Kontrabandoaren bilakaera bi Nafarroen artean 1936-1961 urteen bitartean

1. <u>Sarrera eta testuingurua</u>	2
2. <u>Kontrabandoaren izaera eta bere aurrekariak Euskal Herrian</u>	
2.1: Kontrabandoaren definizioa.....	4
2.2: Mugaldeko Historia bat: mugaren finkapenaren eragina.....	6
2.3: Kronologia motz bat Euskal Herrian.....	8
3. <u>XX. mendeko kontrabandoaren ezaugarriak Nafarroan</u>	
3.1: Kontrabandoa XX. mendearen lehen erdialdean.....	11
3.2: Kontrabandoaren <i>boom</i> -a Piriniotan: 1945-1961.....	13
3.3: Kontrabanda motak eta produktuak.....	17
3.4: Gau lanaren prozesua eta hierarkizazioa.....	20
4. <u>Kontrabandoko eragileak eta harreman sozialak</u>	
4.1: Kontrabandisten perfila eta genero banaketa.....	22
4.2: Boterearekin harremana: boterearen ordezkariak, zigorrak, gatazkak.....	23
4.3: Kontrabandoaren onurak eta alde txarrak.....	25
4.4: Kontrabandoarekiko kontzientzia eta herritartasuna.....	27
5. <u>Baxe Nafarroatik Nafarroara: lekukotasunak</u>	
5.1: Baigorri eta Baztan ibarrak.....	28
5.2: Aldudeko, Esteribar eta Erroko ibarrak.....	31
5.3: Arnegi eta Luzaide herriak.....	32
5.4: Ezterentzubi eta Orbaizeta herriak.....	34
6. <u>Ondorioak eta gaiaren inguruko balorazio pertsonala</u>	37
7. <u>Bibliografia</u>	41

1. Sarrera eta testuingurua:

Ondoko lerroetan, Behe-Nafarroa eta Nafarroa Garaia arteko kontrabandoa hartuko dugu ardatz, zehazki 1936-1961 urteen artekoa, lan akademiko gutxi eginak izan direlako kontrabandoaren gaiaren inguruan eta historia oso aberasgarria gordetzen delako literaturak eta imaginario kolektiboak marraztu duten kontrabandistaren irudi utopikoaren atzean.

Kontuan hartuko dugun eremu geografikoari doakionez, Ipar eta Hego Euskal Herria zuzenean lotzen ditu gaiak, mugaldean gertakari asko iragan zirelako *gau lana* ere deitzen dugun jarduera honen inguruan, produktu ezberdinak eramanez legez kontra mugaren alde batetik bestera. Hori dela eta, eremu geografikoa mugatzea ezinbestekoa dugu lan trinko bat osatzeko. Horretarako, Behe-Nafarroa eta Nafarroa Garaia arteko lurreko gau lanaren gaia jorratzea hautatu dut, behe-nafartarra izanez, betidanik hurbilean izan dudana gaia delako eta kutsu misteriotsu handi batekin, gauza asko entzun izan ditudalako honen inguruan.

Halaber, kontrabandoaren gaia kronologia zehatz batean kokatzeko beharra azaleratzen zaigu. Lerro hauetan zehar, Historia Garaikidean gertatu kontrabandoaz arituko gara, XX. mendean zehar, 1936-1961 urteetara mugatuz. Urte tarte hau hartu dut jomugatzat, lana aurreratu ahala, kontsultatu bibliografiak erakutsi didalako garai hauetan eman zela kontrabando gehien bi Nafarroen artean. Urte hauetan barna, kontrabandoaren erabilpena areagotu egin zeneko hiru garai destakatzen direla ikusiko dugu: Espainiako Gerra Zibila (1936-1939), Bigarren Mundu Gerra (1939-1945)/Francoren diktadura (1939tik aurrera hegoaldean) eta Kontrabandoaren “Urrezko Aroa” deitu garaia, 1945-1961 bitarte. Erran gabe doa aurretik ere *gau lana* existitu izan dela Euskal Herrian, eta aurrekari asko izan zituela XX. mendean zehar areagotzeko bidean. Hala ere, mende honi begira dugu dokumentazio osatuena, hurbilena eta ugariena. Gu aipaturiko urte artean zentratzen bagara ere, XX. mende hasieratik egin zen kontrabandoa bi Nafarroen artean, 1995eko Schengen espazioaren finkapena eta beraz, kontrabandoaren desagertzea arte (ESCOBEDO ROMERO, 2000: 695)

Askorentzako oraindik “tabu” bat izaten segitzen du kontrabandoak, jarduera ilegala zela eta, oso iturri historiko urriak ditugulako garaiko kontrabandoaz hitz egiteko. Lehenik eta behin, legez kanpoko aktibitatea izanik, garai hartako lehen mailako iturriak askotan justiziaren dokumentuak dira, baina ezer gutxi dago idatzia kontrabandistaren edo

kontrabandoa bizitzen zuenaren eskutik. Bestalde, bigarren mailako iturri askoz gehiago daudela azpimarragarria da, lekukotasunak bezala, kontrabandoaren fenomenoak desagertzearekin eta denbora pasatu ahala, garaiko protagonistak (aduanak zein kontrabandoak beraiek) bizipenen kontatzen hasi direlako gaiaren inguruan, ikerketa lanak zein kontrabandoa gaitzat duten bestelako nobela edo liburuak bidertuz.¹

Halaber, euskal kontrabandoaren inguruan egin izan diren lan gutxitatik gehienak Aro Modernokoak dira, Amerikatik ekarritako kakao, urre zein tabakoaren kontrabandoaz hain zuzen ere. Aro Garaikidekoak, berriz, asko kokatu ohi dira Bidasoa aldean Nafarroan baino. Aipatu ditugun arrazoi ezberdinak direla eta, zailtasun handiagoak izan ditut Aro Garaikideko nafar kontrabandoaz aritzen ziren iturriak aurkitzeko. (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 9-10)

Amaitzeko, azpimarratu nahi nuke lan hau aberasteko asmotan, kontrabandoa egin edo ezagutu dutenengana jo dudala lekukotasunen hartzera, bi Nafarroen arteko mugako herrietan. Kontrabandista ohien zein inguruan zituzten emakume, herrikide edo familiarrengana jo dut horretarako. Oso esperientzia aberasgarria izan da dokumentazio teorikotik praktikotik gertatu zenaren berri hartzeko eta nire lana benetako bizipenez indartzeko.

Problematika hauei erantzunak ekartzeko asmoz, lehendabizi, kontrabandoa zer zen ulertzen saiatuko gara eta zerk erraztu zuen bere agerpena Euskal Herrian. Jarraian, Mendebaldeko Pirineotan zituen ezaugarri bereziak zehaztuko dira, baita parte hartu zuten eragile eta sortutako harreman sozialak. Amaierari begira, hamar lekukotasunetan oinarrituko gara Behe-Nafarroa eta Nafarroaren arteko mugaldeko lau zonaldeko kontrabandista ohien eta biztanle ezberdinen bizipenak biltzeko eta garaian kontrabandoa zer izan zen hobeto ulertzeko.

¹ Lehen mailako iturri literario askok kontrabandistaren irudia erromantizatze eta desitsuratze balio izan dute, iparraldean Pierre Loti idazlearen *Ramuncho* eleberria edo hegoaldean Pio Barojaren *Zalacain el aventurero* liburua bezala. Gu, ahal den heinean, saiatuko gara iturri literariotatik baztertzen, testu historikoetan zentratuz eta garaian kontrabandoan parte hartu zutenengana joz (PERALES DIAZ, 1998: 131).

2. Kontrabandoaren izaera eta bere aurrekariak Euskal Herrian

2.1: Kontrabandoaren definizioa:

Lehenik eta behin, maiz erabiliko dugun hitza definitzea ezinbestekoa iruditzen zait lan hontako lerro handietan sartu aurretik. Definitzeko kontrabandoa zer den, arlo anitzetatik definizioak ematen saiatu dira berezituak, batez ere arlo judizialek, kontrabandoa ilegaltzat den aktibitate bat denez. Hala, *Diccionario de la Real Academia Española* delakoan, “legez kanpo egindako generoen komertzio, introdukzio, esportazio, produkzio edo jabetza” bezela definitzen dute. Aipatu bezala, Nafarroako zonaldean, kontrabandoa *gau lan* izendapenarekin ere deitu izan da askotan, hitzak berak definitzen duelarik jardunaren nondik norakoa (PERALES DIAZ, 1998: 127). Halaber, azpimarragarria da ondoko lerroetan lur azalean egindako kontrabandoa dela zutabetzat hartzen, nafar lurak abiapuntutzat hartzen direnez. Hala eta guztiz ere, ezin da ahantzi garai berdintsuetan itsasoz egindako kontrabandoa ere existitu zela Gipuzkoa eta Lapurdi arteko kostaldeko hirietan (GOYHENETCHE *et al*, 2005: 178).

Espainiako Gerra Zibil garaiko (1936-1939) dokumentazioa ikertuz gero, ikus daiteke Nafarroa Garaian bi delito ezberdin ezberdinak zirela: kontrabandoa eta defraudazioa. Nahiz eta biek merkatu beltzarekin zerikusia duten, bien bereiztea ezinbestekoa da kontrabandoa ulertzeko gisan. Izan ere, 1936-1939ko gerra garaiak egoera ekonomiko berezi bat sortu zuen, zeinetan, gudu testuinguru ugaritan bezela, oinarrizko produktuak lortzeko zailtasunak merkatu paralelo eta ilegal baten sorrera ekarri zuen. Aurretik ere, 1929an, kontrabandoa erreprimitzeko legedia indartu zen Espainian, eta kontrabandoa zein defraudazioa argiki definitu ziren lege sortetan, bata eta bestearen ezaugarriak argituz, hobetu epaitzeko gisan ondoren. Neurri judizialaren arabera, kontrabandoa “legez kanpoko produkzio edo komertzio orori” deitzen zaio, baita “legez kanpoko genero eta merkantzien” edukitzeari. Defraudazioan, ordea, salerosiak diren merkantziak ez dira berez legez kanpokoak baina aduana zergak pagatu behar dituzte. Defraudazioa, orduan, aduana zergak pagatu behar dituzten objektuen “fabrikatzea, zirkularaztea eta salerostea” litateke, aduanak

ekidinez². Kontrabandoan, berriz, merkantzia debekatuak liratezke eramandakoak. (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 11-12).

Dena dela, kontrabandoaren definizioa ere garatuz joan da urteetan zehar. Gerora, “kontrabando” bezela definituko da merkantzia debekatuen “esportazio/inportazioa, baita merkantzia onartuena”, baldin eta “zergen bilketa arauak urratuak” ziren, hots, aduana saiestua bazen. Definizioaren garapena kontuan hartuta, kontrabandistek defraudatutako merkantziak ere eramango zituzten haiekin muga iragaitean, eta bi nozioak uztartuz joango ziren gau lana areagotu ahala (Ibidem: 12).

Orohar, defraudazio edo kontrabando izendapena erabiltzea ñabardura hutsa da, bi hitzek atzean gordetzen dutena merkatuari loturiko ekintza ilegalak direlako, besteak beste, aduana zergen menpe diren produktuak trafikatzeko edo komertzioa, produkzioa, inportazioa zein esportazioa mugatua edo debekatu duten produktuen salerostea (ESCOBEDO ROMERO, 2000: 697).

Gainera, Espainiako Gerra Zibilaren garaian kontrabandoaren aurkako legedia zorroztu egin zen. Garai hontan, “estraperlo”³ nozioak bere agerpena egin zuen, lehenago aipatu ditugun kontrabando eta defraudazio delituak nahasiz (ORTEGA & ZABALZA, 200: 28). Legearen aurrean, ez zen kontrabandoaren berdina, baina biak aktibitate ilegalak ziren. Hala, kontrabandoa, “ nazio arteko produktuen trukatzeko edo saleroste ilegalak da”, baina “(...) estraperloak, ordea, ez du inportazio-esportazioarekin zer ikusirik. Nazioan bertan, lurraldearen barruan egindako merkataritza ilegalak dela esan dezakegu, eta askotan, gehienetan, janariarekin, lehen gaiarekin egindakoa da”. Definizio hau kontutan hartu, gure lana kontrabandoan oinarritua da, mugaren bi aldeak kontuan hartuak direlako. Dena dela,

² Definizio hauek kontrabandoa erreprimitzeko Espainiako legediatik ateratzen dira. Lege sorta ezberdinen arabera, definizioa modifikatuz joan zen, hots, 1831,1852,1904,1929 eta 1953 urteen artean. (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 12). Kontrabandoaren aurkako lehen lege errepresiboa 1930 urtean idatzia izan zen, jarduera beraren lehen definizio bat emanez. Azkenik, ordea 1982 urtekoa da (PERALES DIAZ, 2003: 106-107).

³ *Estraperlo* kontzeptua bera Espainian asmatua izan da, gosearen ondorioz sortua, familien beharrak asetzeko. Euskal Herrian bertan kokatu beharra dago hitzaren etimologia. Espainiako II. Errepublikaren garaian, 1934an, Donostiko kasinoan, argi indarrez funtzionatzen zuen erruleta bat eman zen *Straperlo* markakoa. Dena dela, erruleta hau martxan jartzeko, gobernuko kide batzuk erosi nahi izan ziren. Istorioa publiko egin zen eta eskandalu bihurtu. Horrela agertu zen “estraperlo” hitza (ARBURUA, 2011: 145).

ezin dugu estraperloaren errealitatea baztertu, kontrabandoarekin batera, goseari aurre egiteko modu bat izan zelako XX. mendeko gatazken aurrean (ARBURUA, 2011: 145).

Laburbilduz, mugak eta aduanen kontrola existitzen diren gunen orotan kontrabandoa gertatzeko posibilitatea agertzen da, kontrabandoa garatzen delako merkatu askea plantan emana ez den testuingurutan, bi estatuk neurri ekonomiko ezberdinak martxan jartzen dituztenean.

2.2: Mugaldeko Historia bat: mugaren finkapenaren eragina.

Kontrabandoa, beraz, ezinbestean mugaldeari lotutako fenomeno da. Ideia honekin bat dator Rosa Arburua ikerlea ere bai. Honek dionaz, “lurraldeen arteko mugak izan diren neurrian, kontrabandoa izan da. Muga eta kontrabandoa bat datoz”. Haren arabera, “edozein motatako merkataritzak mugak gainditzeko zergak ordaindu behar baditu, paraleloki kontrabandoa izanen da” (ARBURUA, 2011: 19).

Lehenik eta behin, muga bera definitzeko, erran daiteke estatu batek lurralde batean duen subiranotasun eta kompetentzien limitea dela. (BAIONAKO EUSKAL MUSEOA, 2022) Definizio hau kontuan harturik, gure kasuan, Frantzia eta Espainiaren arteko Euskal Herriko, bi Nafarroen artekoa alegia, mugaldea dugu aztergai, zeinetan bi estatuen autoritatea eta boterea aplikatu diren merkatua kontrolatzeko eta kontrabandoa erreprimitzeko.

Hasteko, gaur egun ezagutzen dugun Frantzia eta Espainiako muga ez da beti horrelakoa izan, mugaren finkapen ezberdinek eragina izan dutelako legez kanpoko merkatuaren bilakaeran. Luzaroan, mendeetan zehar, Frantzia eta Espainia artean ez zen muga argirik finkatua izan, beraz, Ipar Euskal Herriko zein Hego Euskal Herriko herritarrek libreki zirkulatzen zuten haien herrian, inportazio eta esportazioak gauzatu. Hala eta guztiz ere, zirkulazio aske hau mugaren finkapenarekin aldatuz joan zen. Mugaren lehen finkapen primitibo bat gauzatu izan zen Piriniotako Ituna izenpetzean Bidasoan dagoen Faisaien uhartean, 1659an. Bertan, Frantzia eta Espainia adostu ziren Pirinioek naturalki dituzten lerroak eta mendi formak hartzeko muga gisa. Nahiz eta lehen aldiz bi koroek muga bat finkatu zuten, honen ezarpena abstraktua gertatzen zen eta ez zuen ohitura aldaketarik ekarri biztanleengan: betiere, segitu zuten alde batetik bestera mugitzen eta merkantzien trukatzeko. (Ibidem: 2022).


1856an gertatu zen benetako aldaketa, gaur egun ezagutzen dugun muga finkatua izan zenean Baionako Itunean. Izan ere, 1659ko akordioak arazoak utzi zituen mugaren zehaztasunean. Honen eredu da ipar eta hego Nafarroaren artean dagoen Kintoa euskaldea, iparreko Baigorriko ibarra eta hegoko Baztan eta Erro ibarren artean zatitua. Mendi altuz osatutako Piriniotako muga denez, garaian soilik bi Nafarroetako artzainek erabili udako saroak ziren. Nafarroako Erresumaren garaitik, bi aldeak koro berdinarenean barne zirenez, ez zegoen banaketa arazorik, baina Nafarroako Erresuma Gaztelaren esku erortzean, Hegoa bertan kokatua egon zen eta iparra Frantzian. *Modus vivendi* moduko akordio bat adostu zuten geroztik bi aldetako artzainek: lur hauek zatiezinak izango zirela eta artzai guztiek erabiltzeko posibilitatea zutela, beraz, inor ezin zela bertan instalatu. XVII. mendeko populazio hazkundearen eraginez, Baigorriin baserriaren segidarik gabe geratutako premuak Kintoako udako bordak erabiltzen hasi ziren urte osoan, udatik at ere, bizitoki gisa. Horrek hegokoen kexua piztu zuen, lur zatiezinak erabiliak zirelako eta akordioa hautsia. 1785an, Elizondoko Itunean, bi lerro perpendikularrez zatitu zen Kintoa (Ornano lerroa), zati bat hegoari utziz eta bestea iparrari. Honek ez zituen artzai trashumanteen zatiketa arazoak konpondu. 1856ko Baionako Itunak Elizondoko muga lerroa eta 1659ko banaketa baieztatu zituen: Ornanolerroa eta ibaiaren mugaren arteko lurra Frantziaren esku geratu zen eta uraren hegoaldeko zatia Espainiaren barne. Iparreko zatia, beraz, Espainiaren enklabe bat da gaur egun Frantziaren barne. Erran gabe doa mugaren zatiketa arbitrario honek erabat baztertu duela bi aldeen nafartasuna eta bertako biztanleen errealitatea, mugaren finkapen akordiotan zehar (VIERS, 1951: 260-284)

Orduan, 1856an marraztua izan zen gaur oraindik indarrean dagoen muga, Bidasoatik Nafarroa eta Aragoien arteko limitea arte. Horrela, Frantzia eta Espainiaren arteko muga Mediterraneo itsasoa arte erabakia geratu zen eta 602 mugarri finkatuak izan ziren zonalde honetan bi estatuen artean (Ibidem: 2022). Dena dela, aduana soilik XIX. mende amaieran ezarria izan zen, karlistaden porrotaren eraginez, aduana bi estatuen artera mugitu baitzen, barne aduanak kenduz eta preoduktu berriak zergapetuz (GOYHENETCHE *et al*, 2005: 270). XX. mendean, merkantzien muga zeharkapenak bat egin zuen pertsonenarekin, Euskal Herria eremu gatazkatsua bihurtu zelako lehenik Gerra Zibila, Bigarren Mundu Mailako Gerra zein Frankoren diktadurarekin. 1946an, De Gaulle generalak Pirineotako muga osoa hesteko erabakia hartu zuen, Frankok erresistentziako 10 pertsona heriotz zigorrera kondenatu

ondoren, ihesean etorritako pertsonen etorrera oztopatzeko. 1948 urtea arte indarrean egon zen neurri hau (BAIONAKO EUSKAL MUSEOA: 2022).

Geroztik, Nafarroan muga beti irekia egon da, baina, adunaren kontrolpean. 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera, Europar Batasunak Schengen espazioa adostu zuenetik hain zuzen ere, pertsonen eta merkantzien zirkulazio librea onartu zen, aduanen eta mugako kontrolen ezabapenarekin. Honek, ezinbestean, kontrabandoaren amaiera ekarri zuen (ESCOBEDO ROMERO, 2000).

Laburbilduz, kontrabandoa mugaldeko historia bat dela erraten dugunean, espazioan kokatzeaz gain kronologian ere kokatzen dugu kontrabandoaren jardun ilegala, mugak existitzen direnetik kontrabandoak mugaldeko espazioetan existitzeko aukera izan duelako.



1. irudia: Kintoako mapa. Iturria: Robert aux bornes des Pyrénées webgunea. Kintoako mapa eta mugaren banaketa, 1856an baieztatua. Argiki ikus daiteke Piriniooen jarraipen naturala eta erdian arbitrarioki trazatu Ornano lerroa (laranjez). Urdinez dago uren banaketa eta arrosez Hego Kintoaren muga.

2.3: Kronologia motz bat Euskal Herrian:

Erran bezala, guk XX. mendean praktikatu den kontrabandoa jomugatzat hartu badugu ere, interesgarria dirudit honen egonkortzeko bidean izandako aurrekarien aipatzea, eta beraz, kontrabandoak aurretik izandako ibilbide eta kronologia aipatzea. Hurrengo lerroetan, bi Nafarroen arteko kontrabandoaren kronologia motz bat ematen saiatuko gara.

Hasteko, erramolde zabaldu baten arabera, kontrabandoa “munduko bigarren aktibitate ilegal zaharrena” da⁴. Oso zaila da kontrabandoaren agerpen data zehatz baten ematea, dokumentu eskasagatik eta aktibitatearen ilegaltasunagatik. Erran daitekeen bakarra da autotitateak terroriorioak eta jarduera ekonomikoak mugatzen dituen espazio orotan kontrabandoa existitzeko aukera dagoela (PERALES DIAZ, 1998: 129).

Aitzinarotik aduanak daude mugetan. Adibidez, Erromatarrek konkistatutako lurralde osoko mugetan finkatu zituzten, Euskal Herrian barne. Neurri handi batean, merkatariek zituzten aduana zergak pagatu behar produktuak erromatar lurretatik eramatean edo bertara ekartzean. Nafarroa ez zen Erromatarren konkistatik kanpo geratu, beraz, aduana sistema hori aztergaitzat ditugun lurretan aplikatu zela badakigu. Garaiko dokumentuen arabera, kontrabandoa, hots, aduana zergen saiestea, gogorki erreprimitua zen. Esate baterako, heriotza zigorra arriskatzen zuen inperiotik kanpo gatza, garia, zilarra edo burdina zeramatzanak (ARBURUA, 2011: 13-14).

V. mendetik aurrera, Euskal Herrian Europa osoan bezala, aldaketa ekonomiko-politiko sakondak gertatu ziren: krisia iritsi zen Mendebaldeko Erromatar inperioa erortzearekin eta merkataritza zein komunikazioa bideak kaskartu egin ziren. Erdi Aroa iritsi zen, eta nekazaritza izan zen, hasieran behintzat, jarduera nagusia. X-XI. mendean, nekazaritza hazkundera izan zen. Kalkulatzen da biztanleriaren %90a hortaz biziko zela. Hala ere, Pirineotan merkataritza eta kontrabandoa ez ziren desagertu. Esate baterako, Karlomagno erregeak *tonlieux* izeneko bidesariak inposatu zituen bide, zubi eta ibaietan. Gaur egungo Ipar Euskal Herrian, neurri hau indarrean egon zen eta egoerari aurre egiteko, merkatariek kontrabandoa praktikatzensegitu zuten (Ibidem: 17-19).

Halaber, X-XII. mendeko hirigintza prozesuak hirien arteko komunikabideen sendotzea ekarri zuen, baita hirien atarian zein lurraldeen artean bidesarien ezartzea. Ordainketa hauek saiesteko, bide paraleloak sortu ziren, Nafarroan ere. Garai hontan, “mandozain” deitutako kontrabandoek garrantzia hartu zuten, mandoen gainean karreatzen zutelako merkantzia. Eman dezagun, asko Nafarroatik Baionako portura joaten ziren burdinez

⁴ Lehena, adierazpen popularrak dioen erara, prostituzioa litzateke. Honen kasuan ere, kontrabandoa bezala, ezin da zehaztu noiz sortu den, baina betidanik existitu den jarduera ilegala da, behintzat, merkatu eta salerosketek ordaindutako lanaren forma bat sorrarazi dutenetik.

beteak, Iruñera itzultzeko arrainarekin. XVI. mende amaiera aldera, kontrabandoak indarra hartu zuen, batez ere dirua, zilarra eta errearenak (Ibidem 38-53).

XVII-XVIII. mendei doakionez, bi kontrabando mota aipa ditzakegu Nafarroaren kasuan: portuetatik Nafarroara ekarri produktu kolonialena eta Nafarroan bertan egindako barne produktuena. Lehen kasua aipatzeko, garai hauetan kontrabandoan eramandako produktuen dibertsifikazioa aipagarria da, batez ere, itsas merkataritzaren areagotzearekin eta koloniekkin. Besteak beste, garia, olioia, garagarra, lekaleak, zilarra, kakaoa, dirua, aziendak, artilea, eta burdina eramank ziren mugaren alde batetik bestera (Ibidem: 80). XVIII. mendean, esaten denez, Euskal Herria “kontrabandisten paradisu” bihurtu zen. Produktu kolonial asko legalki sartzen ziren Baiona eta Donostiko portutara eta bertatik ilegalki eramank ziren Nafarroara. (ETXEBERRIA *et al*, 1985: 13) Produktu kolonialak maiz zergapetuak ziren aduanetan, tabakoa bezala Frantziara sartzekoan, *Ferme Générale*⁵ deitu zergarekin. Honek kontrabandoa areagotu zuen ezinbestean (ARBURUA, 2011: 64-98). Garaiko bigarren kontrabando mota bertako produktuena da. Kabalak eta bihiak garraiatzen ziren kontrabandoz krisia garaietan, hauen eskasiaren ondorioz, zergapetuak zirelako. Garai hauetan, Gaztelako merkatuaren %30a kontrabandoz egina zen (ETXEBERRIA *et al*, 1985: 49).

XIX. mendearekin amaitzeko, gudutik gudura ibili zen Euskal Herria Napoleonen inbasioa eta Gerra Karlistekin. Gerra garaietan sortu beharrei erantzuteko balio zuen orduan kontrabandoak, faltatzen ziren produktuak ekartzeko. (ARBURUA, 2011:100).

Hau guztia kontuan hartuta, kontrabandoak ibilbide luzea izan du bi Nafarroetan guk aztertuko dugun XX. mendera arte iristeko, oso aspaldikoa delako bere presentzia mugak eta aduana zergek etengabe baldintzatu duten lurralde honetan.

3. XX. mendeko kontrabandoaren ezaugarriak Nafarroan

⁵ XV-XVI. mendeen artean, Colbert Frantziako finantzalariak erregearen zorrak estaltzeko asmatu zerga. Iraultza baino lehen, 30 milio eta erdi libera ematen zizkion zerga honek urtero estatuari, orduan, merkatu paraleloa kontrolatzeko beharra ezinbestekoa zitzaien. Garai hauetan, merkantzia harat-honatak zergapetuak zirenez, asko areagotu egin zen kontrabandoa. Colberten teoriak erabiliak izango dira ondotik XVIII. mendean Frantzia barne aduanak kentzeko eta estatuaren mugetara eramateko (ARBURUA, 2011: 64-65).

3.1: Kontrabandoa XX. mendearen lehen erdialdean

Aurreko orrietan kontrabandoa aktibitate zaharra zela ikusi dugun arren, Aro Garaikidean emandako kontrabandoaz hitz egingo dugu lan honetan, XX. mendean zehar zentratuz, hor ditugulako kontrabandoaren azken arrastoak eta garaikideenak, lehen mailako zein bigarren mailako iturriek kontatuta.

Azkarki emendatu zen kontrabandoaren erabilpena XX. mende atarian euskal mugaldeen, Piriniotan barne. Gatazkak eragin asko izan zuten hortan, eta guk 1939-1961 urteak aztertuko ditugu, euskal Piriniotan hor eman zelako gehien bat kontrabandoa. Hiru garaietan bana daiteke periodo aktibo hau: Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) eta Bigarren Mundu Gerra/ Francoren diktadura (1939-1945) eta kontrabandoaren *Urrezko Aroa* (1945-1961) (ARBURUA, 2011: 144).

Gerrek eta gatazka politikoez sortu janari falta izan zen orduan kontrabandoa areagotu zuten faktoreetariko bat XX. mende hasieran Frantzia eta Espainiaren artean, agian faktore nagusia. Izan ere, gerra momentuan gobernuek “errazionamendu” bat finkatzen zuten janari faltari aurre egiteko. Hori gertatu zen 1936tik aurrera Hego Euskal Herrian, Gerra Zibilaren ondorioz. Hala, *Cartilla de Racionamiento* delakoak martxan jarri zituen gobernuak. Hala ere, merkatu legalak ez zuen nahikoa furnitzen eta merkatu ilegala handitu zen, nahiz eta produktu gutxi eta oso garestiak proposatu. Francoren gobernuaren hitzetan, errazionamendu sistemak behar bezainbat janari eskaintzen zion populuari bizitzeko. Hala eta guztiz ere, kontuan hartzekoa da 1935-1939 bitartean, nekazaritza %21.2az jeitsi egin zela, batez ere 1940 urte inguruan, Gerra Zibila amaitzean, Francoren diktadura garaian, nekazari askok hirietara jo zutelako, baita atzerrira ere. Alabaina, gose gutxi pairatu omen zen herrietan, hiriarri konparatuz, etxaldeen produktutakoaz aurre egiten zitzaielako tripa zorriei. Ogi beltzaren kontsumoa aipagarria da gerra garaietan Espainiar estatuan, txuria “aberatsena” zelako. Horrez gain, garaiko datuei erreparatuz, ezin uka krisiak bete-betean jo zuela Espainiar estatua: soldata %23a jaitsi zen eta prezioak igo %25az, diruaren balioa

altxaaraziz⁶. Testuinguru hontan, “errezionamenduaren paraleloa estraperloa izan zen [...] errezionamendu sistemarekin ez (baitzen) bizitzerik” (Ibidem: 147-153).

Bigarren Mundu gerra aipatzeko, Ipar Euskal Herrira begira jarri behar gara gehiago aldi hontan, Frantziar lurraldeak alemanen okupazioan egon zirelako. Gerra Zibiletik dagoeneko kontrabando asko egin bazen, Bigarren Gerra Mundialean joera ez zen baretu (OSPITAL, 1982:28). Lehenik eta behin, beti bezala, gerra testuinguruak prezioak emendatu zituen bertan. Esate baterako, 1942an, 200 liberatan saltzen zen azukre kiloa, eta 1944an, 400etan. Egoera honen aurrean, gutxi batzuk aberastu ziren komertzioan, prezioen goratzea zela eta, baina “ [...] orokorrean, estraperloa familien beharrak betetzeko egiten zen” (ARBURUA, 2011: 154). Gainera, Gerra Zibilaren kasuan bezala, errezionamendu tiketak martxan jarri ziren goseteari aurre egiteko eta elikagai merkatua kudeatzeko. Izan ere, 1939 urtean, Errazionamenduen Ministeritza sortu zuen frantses gobernuak, laborantza produkzioa kontrolatzeko, janariaren zentralizatzeko eta banatzeko. Beste eskemetan ikusi gisan, hemen ere merkatu ilegalak bete zituen sabel asko: honen froga dira arauen urraketari begira ezarritako legeak, eman dezagun, isunak, kartzela zigorrak edo denden zarratzeko aginduak (ARCHIVES DÉPARTEMENTALES DE SEINE-ET-MARNE, 2022).

Gerra Zibila eta Bigarren Mundu Gerra garaian, kontrabandoko kondenen dokumentazioa ikusiz, konturatzen gara 1936ko urtean Baztan inguruetan praktikatzen zela gehien bat. Kontrabandoa, beraz, mendiz egiten zen, alde bateko eta besteko herri txikiak erabiliz abiapuntu eta jomuga bezela (Elizondo, Erratzu, Baigorri..) Garai hauetan, dokumentazioak erakusten duen gisara, batez ere Iparraldetik Hegora eramanak ziren merkantziak, Gerra Zibilak eraginda. Urte hauetan, kontrabandoa biziraupenerako erabilitako tresna zen, kontrabandista gutxi batzuk praktikatzen zutena janaria eramateko eta autokontsumoan familiak elikatzeko. Egoera bestelakoa da 1940an, Bigarren Mundu Gerra garaian. Beratik Orbaizeta arteko muga osora zabaltzen da kontrabandoaren praktika, eta badirudi Orbaizetatik at ez dela iritsi, Pirinioek sortutako mendi altuegiengatik agian. Urte hauetan, Frankismoak eta Bigarren Mundu Gerrak eraginda, bi aldeetan erabilia izan zen

⁶ Kontuan hartzeko datua da, jada ahul zegoen egoera industrial eta ekonomikoaz gain, Gerra Zibila amaitu ondoren eta Franco diktadurak atzerriko estatuen boikota jaso zuela eta ez zutela bertara ezer esportatzen. Bidasoa aldean, kontrabandoari esker sartu zen lehen makineria industria sortzeko, Guardia Zibilaren nolabaiteko ez ikusiarekin. Nafarroaren kasuan, kontrabandoa biziraupenera mugatu zen eta Francorengandik ihesi askok muga ilegalki pasa zuten, mugalariei esker. (ARBURUA, 2011: 147-153)

kontrabandoa (Iparretik Hegora, Hegotik Iparrera), joera nagusirik destakatu gabe. Dena dela, aldaketa sumatzen da 1936 eta 1940 urteen artean: kontrabandoa ez da gehiago autokontsumora mugatzen baina salmentara ere, errezionamenduak eragin merkatu beltzean (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 19-26).

Laburbilduz, XX. mendeko lehen erdialdeko kontrabandoa batez ere gerrek eta Francoren diktadurak sortutako eskaerari erantzuteko erabilia izan zen, batez ere janaria eta fundamentalak ziren bestelako produktuak eskuratzeko.



2.irudia: Kontrabandistak Bortzirietan XX. mendean. Iturria: Euskal Herria lehen webgunea.

3.2: Kontrabandoaren boom-a Piriniotan: 1945-1961.

Kontrabandoaren XX. mende erdialdeko joera orokorrak barneratu ondoren, bigarren erdialdea aipatzera gatoz ondoko lerroetan, batez ere, historialariak 1945-1961 urteen artean kokatzen duten kontrabandoaren *boom*-a, kontrabandoaren pratikan izandako gailurra alegia. Gainera, kontrabandoaren zabalpen honek batez ere Nafar lurraldeak ukitu zituen, Piriniotan ipar zein hegoaldean.

Hasi aurretik, lehen esplikatu bezala, 1945 urte atarian, kontuan hartu behar dugu dagoeneko kontrabandoak hartu zuen joera, hots, ez zela gehiago elikadura autokontsumorako egiten bakarrik. Izan ere, merkatua dibertsifikatzen hasi zen eta mota guztitako produktuak garraiatzen hasi ziren, kabala eta janariaz haratago. Hori kontuan

hartuta, abiapuntu bat izan daiteke ondoko urteetan kontrabandoaren demokratizaziorako, 1945 urtatik aurrera (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 21). Ipar Euskal Herrian, esate baterako, gatazken beharrekin hasi bazen ere, kontrabandoa asko zabaldu egin zen Bigarren Mundu Gerra ostean ere, beharrezko produktutatik at merkatua zabalduz (OSPITAL, 1982: 28).

Douglass historialaria bezelako ikerleek, “kontrabandoaren periodo aktiboa” bezela izendatzen dute 1945-61 urte artea, Frankismoaren ondotik eskasia ekonomioei erantzuteko bidea izan zelako Hegoaldean eta Iparrean, baserrien krisiari aurre egitekoa. Hauen arabera, mugako herri batzuetan, populazioaren %90a arituko zen kontrabandoan. Eman dezagun, Etxalarren (Nafarroa Garaia) eskaera kontrabandako eskaintza baino askoz handiagoa omen zen. Hori dela eta, gazte eta heldu askok lana izaten zuten asteko gau ezberdinetan, baita emakume eta haurrek ere, mezulari edo zaintzale gisa. Baztango ibarrean ere, antzeko fenomenoak gertatu omen zen, eta kontrabandaz eginiko aktibitateen apaltze bat sentitu zen 60 hamarkada hasierakoan, Frankismoaren ekonomia irekieraren ondorioz industrializazioa bizkortzearekin (PERALES DIAZ, 1998: 131- 132).

Hori dela eta, “Eremu beroa” izendatua izan zen Gerra Zibilaren ostean aztergaitzat dugun eremua, hots Pirinio Mendebaldeko Nafar zonaldea. 1950 urteen aldera aktibo izan zen gehien bat eremu hau: Baztan, Erro, Esteribar eta Aezkoako ibarrak dira kontuan hartzekoak Nafarroa Garaiko, Iparraldetik mugakide dituzten herriekin (Baigorriko ibarra, Aldudeko ibarra eta Garazi euskaldea). Ugari izan ziren bertako pasabideak, baso, mendi eta zona isolatuetan barna. Guk, lau multzo handitan banatuko ditugu pasabide hauek (noski, alde batetik bestera baliagarriak): Baigorriko ibarretik Baztanera, Izpegiko lepotik edo Uritzatetik pasatuz, Aldude ibarretik/Kintoatik Baztan, Esteribar edo Erroko ibarretara, Arnegitik Luzaidera eta Orbaizetatik Garazi aldera, Iratiko basotik pasatuz. Nafar piriniotako igarobide hauek izan ziren gehien zaindutakoak postgerran. Honek esplikatzeko du bertan kokatu zituztela Frantziako eta Espainiako estatuek beraien aduana eta guardia zibil gehienak. Orotara, Guardia Zibil kopuru handiena Nafar mendietakoa zen: “Zona beroa” zaintzeko, 20 Guardia Zibil postu eratu ziren Nafarroa Garaian (PERALES DIAZ, 2003: 114-117).

Kanpotik etorritako faktore batzuk markatu zuten kontrabandoaren eztearen hasiera 1945 urtean. Alde batetik, Hego Euskal Herria bakartuta geratu zen ekonomikoki Bigarren Mundu Gerran, eta honek produktu asko lortzeko nekezia zekarren. (ORTEGA NOGUERA

& ZABALZA GARATE, 2000: 30) Izan ere, Euskadiren bakartzen hori Francok Bigarren Mundu Gerran hartutako posizioarekin lotu dezakegu, eta bestetik, gerra iragan ondotik Europak jasanarazi blokeo ekonomikoari, baita Franco beraren autarkia politikari. Honen aurrean eta zailtasunak zailtasun, Espainiako industria ez zen erabat altxatua Gerra Zibiletik. Dena dela, eskaria sekulakoa omen zen garaiko: “botoietatik hasita kamioiak arte”. Hori dela eta, mugako zona kontrabandorako leku paregabea bihurtu zen. (PERALES DIAZ, 1998: 132)

Bestetik, barne faktoreak ere kontuan hartzekoak dira, hauen artean, baserrien krisia eta landaren despopulazioa, bertan lanik ez delako baserritan (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 30). Esate baterako, Pirineotako eta orohar, Euskal Herriko estruktura sozio-ekonomikoak aldaketak jasan zituen XX. mendearen lehen erdialdean. Bigarren Errepublikaren garaitik hasita, arazo sozio-ekonomikoak nabari dira Nafarroan. 1929ko krisia internazionalak ez du egoera hobetuko: landa munduan, aldaketak erritmo apalean eginak dira. Adibidez, landutako lur eremua handituz doa baina lantzeko teknika eta tresnetan ez da hobekuntzarik gertatzen. Gainera, industrian ere inbertsioak erori egin dira krisiaren harira: Nafarroan, 1930 hamarkadan, 1920ekoan baino 120 industria gutxiago sortu zen. (Ibidem: 17-18)

Hau guztiarekin, bi Nafarroetako landa gunea ez zen krisitik kanpo egon: baserrien krisia aipatzen dute ikerleek garaiko egoeraz hitz egiteko, edo landa munduarena, orokorrago. Izan ere, kontrabandoaren *boom*-ak garai honekin koinziditzen du, zeinetan geroz eta jende gutxiago behar den baserria kudeatzeko aurreko garaiari konparatuz. Hori dela eta, baserrien kopurua behera doa eta bestelako aktibitateak aurkitu behar dira bizitzeko, kontrabandoa bezela. Mendebaldeko Piriniotan ere, baserri asko desagertuz joan ziren garai hontan. Kontrabandoa, orduan, ulertua izan daiteke kanpotik etorritako aldaketen aurrean izandako barne adaptazio bat bezela, Mendebaldeko Pirineoko landa munduak ezagutu transformazioen aurrean. Hala dioz Perales Diaz berak: “Kontrabandoa ulertu behar orduan “konexio perbertso” bat bezela”, ahalbidetzen duena sistema jasangarria izatea, fase (sozio-ekonomiko) berri batean sartu arte”. (PERALES DIAZ, 1998: 132)

Nafarroa Garaian, aldaketak progresiboki datoz Gerra Zibila amaitzerakoan: laborantzak nagusi segitzen badu ere, industria eta zerbitzuak haziz doaz eta arlo ezberdinek hazkunde bat ezagutzen dute, oihalgintzak, mahastigintzak, eraikuntzak, kimikak eta

esnegintzak bezala. Hori dela eta, egoera ekonomikoa apur bat hobetuz doa hegoaldean, 1945 urtean gertatuko den eztandaaren atarian, hobeto erantzuteko iparretik etorriko den produktu galdeari Bigarren Mundu Gerra garaian (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 18).

Gauzak horrela, Mendebaldeko Piriniotan kontrabandoak ezagutu zuen eztanda baieztatzen dute lekukotasun askok, ikerketa lan honen lurraldean ere bai, hots, bi Nafarroen artean. Honela dio Orbaizetako lekuko batek: *“Por pasar paquetes, antes de los años sesenta, en una noche podrías ganar hasta 500 pesetas. O sea más de lo que ganabas en una semana como pastor”* (PERALES DÍAZ, 1998: 133). Antzeko lekukotasunak dakartzate Baztan inguruko kontrabandistek ere. Beartzunen (Elizondoko auzo bat) bizi den biztanle batek kontatzen duenez, “sei aldiz gehiago” irabazten zuen gauez paketeak eramanez egunean bideak egitean baino. Kontrabandoaren eztanda kontuan harturik, landa ekonomiatik bizi ezin ziren mugaldeko inguruetan sekulako diru sarrerak egin ziren, landa ekonomia bera bigarren planoko diru iturri bihurtu arte. Aktibitate ilegala zenez, ezinezkoa zaigu zenbatzea zenbat diru egin zen kontrabandoarekin, baina Etxalarreko (Bortziriak) lekukoen hitzetan, haien herriak ez du sekula geroztik hainbesteko aberastasuna ezagutu, “ez lehenago eta ez geroago” (Ibidem, 133).

1960 hamarkadan, kontrabandoaren urrezko garaia amaituz joan zen. Asko Nafarroa Garaitik Behe-Nafarroara joan ziren urte haietan lanera, kontrabandoan irabazitako lansari berdintsuen irabazteko aukera izaten zutelako iparrean egurgile edo oihanzain lanetan, lan ilegalean baino. Bertzalde, Bortziriak, Malerreka edota Baztan bezelako Nafarroa Garaiko zonaldeak industrializatu egin ziren erritmo bizkorragoan eta kontrabandoan aritutako langileak erakartzen hasi ziren. (Ibidem: 134).

1945-1961 urteak, beraz, XX. mendeko kontrabandoaren urrezko urteak bezala identifikatu behar ditugu, bertan eman zelako kontrabandoaren eztanda Behe-Nafarroa eta Nafarroa garaiaren artean. Urte loriatsu hauen hasierak kokatu behar ditugu Frankoren diktadurak sortu eskasiekin, eta amaierak diktadorearen ekonomia irekidurarekin eta industriaren hasierekin. Azken hau faktoretariko bat izan zen kontrabandoa pixkanaka gutxitzeko zonaldean, nahiz eta oraindik existitu, beste praktika batzuekin.

3.3: Kontrabanda motak eta produktuak

Nafar Piriniotako kontrabandoak hiru forma hartu zituen Aro Garaikidean. Hala, produktuen, pertsonen eta informazioen kontrabandoa iragan zen bi Nafarroen arteko mugan. Ondoko lerroetan, bakoitzaren nondik-norakoak zehaztera goaz.

Lehenik eta behin, gehien egina izan zen kontrabando mota deskribituz hasiko gara, hau da, produktuen kontrabandoa. Lehenago aipatu bezala, XX. mende hasiera gatazka ezberdinek markatu zuten, Gerra Zibila, Francoren diktadura eta Bigarren Mundu mailako Gerra bezela. Hori dela eta, gerra garai hauetan batez ere *pakete* deitzen ditugunak garraiatu zituzten kontrabandistek: gerra hegoan zenean iparretik hegora, eta gerra iparrean zenean hegotik iparrera eramanez beharrezko produktuak. Askotan, kontrabandistek beraiek ez zekiten zer zeramatzaten paketetan. Hala ere, era ezberdinetako produktuak izaten ziren orohar gerra eta gatazka garai hauetan eramanak. Maila ezberdinetan banatu daitezke: alde batetik, beharrari erantzuteko produktuak baziren, gerra garaian nagusiki eramanak, janaria edo botikak bezela. Hauek ziren gehien bat paketeetan sartzen. Bestalde, kontrabandisten familien egoera ekonomikoa hobetzeko eramanak ziren produktuak baziren, biziraupenetik haratago, ikuspegi ekonomiko batetik, berriro salduak izango zirenak. Hauen artean koka daitezke luxuzko produktuak, fabrikentzako produktuak⁷, edaria edo animaleak. (ARBURUA, 2011: 144)

Nafarroako kontrabandoaren ezaugarritako bat eramandako objektu eta produktuen dibertsifikazioa izan zen. Asko eta denetarik eraman zuten nafartarrek, garaiaren arabera egokituz. 1936an, Gerra Zibilaren bete-betean, ganadoa eta paketeak izan ziren dokumentu ofizialen eta lekukotasunen arabera, eramandako produktu nagusiak, beharren asetzeko. 1940 urte aldera, Ipar Euskal Herrira paketeak eramanak ziren bitartean (Bigarren Mundu Gerran), tabakoa izan zen hegoaldera sartu zen produktu nagusia, kafearekin batera. 1942an, aldiz, kontrabandoaren “Urrezko garaiaren” ataria sumatu zen, ez delako produktu espezifikorik bereizten aduanaren dokumentuetan. Badirudi eramandako produktuak anitzak izan zirela sekula baino gehiago eta edozer eramaten zutela kontrabandistek. Honekin, kontrabandoa handitu egin zela aditzera ematen da. Besteak beste, jantziak, ezpainetako eta azazkaletako

⁷ Europako herrialdeek Francoren diktadura boikotatzen zutenez ezer ez esportatuz, industrializazio berantiarra izan zuen Espainiak. Kontrabandoak rol handia izan zuen klandestinoki sarraraztean fabrikak sortzeko elementuak. Frabriketako makineria eta zati asko sarrarazi omen zituzten kontrabandisten Nafarroan, batez ere Bidasoa aldean.

tintak bezalako produktu kimikoen kontrabandoa hazi egin zen (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 23-28). Orohar, objektu eta produktu dibertsifikatuen kontrabandoa mendearen bigarren erdialdean iragan zen, kontsumismoa garatzen ari zen une berean, kapitalismoak Bigarren Mundu Gerraren ostean bere oinarriak sendotzean. Garraiatutako produktuen artean, ogi zuria, fabriketako tresnak, garraioko materiala, kafea, tabakoa, edariak, jantziak, kondoiak, telebistak, almendrak, puntillak, aziendak eta dirua aipatu daitezke (ARBURUA, 2011: 6).

Produktuena ez ezik, pertsonen kontrabandoa ere existitu zen. Kontrabandistak ez baina *Mugalariak* deitzen ziren pertsonak muga zeharkatzen laguntzen zituztenak. Gehienak produktuen kontrabandoan ere arituak ziren. Nafarroan ibili ziren mugalariak errefuxiatuak, zibilak eta militante politikoak laguntzeko (Ibidem: 250). Dena dela, jendearekin ibiltzen zirenez, kontrabando mota honek ez zuen kontrabandista guzien oniritzia izaten. Entzun ohi zen Nafarroan kontrabandoa ez zela egin behar arma eta pertsonekin. (Ibidem: 145). “*Armak gizona hiltzen dik eta pertsonak, jendeak solasten dik*” (Ibidem: 260). Hala zer entzun ohi zen garaiko kontrabandisten diskurtsoan. Besteak beste, euskal nazionalistak zein errepublikarrak garraiatuak izan ziren Iparraldera Gerra Zibila eta Frankismo garaian. Hegora, aldiz, juduak, erresistenteak edo hegazkin gidariak eramanak izan ziren Iparraldetik, nazismoaren urte ilunetan. Gutxi aipatutako pertsonen kontrabandoa izan zen ere portugesena, Portugaletik lanera joan zirenak Frantziara. XX. mende hasieratik hasi zen portugaldarren ihesa, batez ere Salazarren diktadura garaian. Orohar, pertsonen kontrabandoaz hitz egitea oraindik tabu bat da garaiko kontrabandista askoren baitan, gaizki ikusia zelako. Hori dela eta, ez dugu produktuekin egindako kontrabandoa aina informazio, eta inbestigazio lan handia dago egiteke oraindik. (Ibidem: 251-263)

Azkenik, informazioaren kontrabandoa aipatu beharra dugu, gehienik, gerra garaietan egindakoa, garai horietan, informazioak balio izugarria hartu ohi duelako gudaren erdian. XVI. mendetik aurrera dauzkagu informazioaren kontrabandoaren lehen zantzuak, baina, erran gabe doa Aro Garaikideko gatazketan ere erabilia izan zela. (Ibidem: 44) Adibidez, Bigarren Mundu Gerra garaian, alemanen aurkako dokumentazio, mapa edo base sekretuen kokaguneak pasatu ohi ziren objektuen barruan disimulaturik, aizkora baten barruan bezela. Askotan, beraz, produktuen kontrabandoan disimulatuta egindako kontrabando mota zen informazioarena, nahiz eta gerta zitekeen informazioa bakarrik ere igarotzea. (Ibidem, 251). Ospitalek kontatzen duenez, Aldudeko ibarrean hegotik Londresera eramateko gutunak

pasatzen ziren gerra garaietan. Batzutan beste zentzuan ere izaten ziren pasak, adibidez, Baionatik pakete sekretuak eramatea Elizondora. Erraten duenez, dagoeneko kontrabando “normalarekin” hego eta iparrekoek harreman estuak zituztenez, normalean errazki eginak ziren informazio pasak ere, nahiz eta Alemanen edo Gestapoaren mehatxua izan (OSPITAL, 1982: 63).

Jakin gabe, baliteke Ospitalek aipatzen duen informazio sarea Nafarroako Kontseiluarena izatea. Talde hau 1945 urtean sortu zen Mexikon, Gerra Zibilean exiliatutako 7 nafar errepublikanoren inpulsuz. Talde honen Nafarroa Euskadin inkorporatzea zuen xede. Horretarako, bere egoitza Baionan finkatu zuen, 7tatik 3 bertara bizitzera joan zirenean. Baionatik Iruñeara eramaten zituzten informazioak, Nafarroako muga kontrabandisten laguntza erabiliz. Dena dela, 1953an desegin zen taldea, eraginkortasun eskasez (GRAN ENCICLOPEDIA DE NAVARRA: 2022).



3. irudia: Nafarroako Kontseilua, 1945. Iturra: Gran Enciclopedia de Navarra.

Errandako guztia kontutan hartuz, hiru kontrabando mota ezberdindu daitezke: produktuena, pertsonena eta informazioarena. Hala eta guztiz ere, hiru kasuetan gau lanak bere antolaketa eta lan banaketa propioa izan zuen.

3.4: Gau lanaren prozesua eta hierarkizazioa

Segitzeko, lurreko kontrabando lanak nola eginak eta antolatuak ziren azalduko dugu, prozesua zein protagonisten arteko lan banaketan sakonduz.

Lehenik, badirudi *Gau lana* izendapenak berak ematen digulako Nafarroako kontrabandoaren inguruko zehaztapen handiena, hitza bera lur hauetara bakarrik mugatzen denez. Hala, mendian gauez egindako praktika litzateke kontrabandoa orduan (PERALES DIAZ, 1998: 127). Dena dela, badakigu orai Nafarroako kontrabandoaren %100a ez zela gau lanez egin, nahiz eta bi Nafarroaren arteko muga menditsuetan errazago praktikatua izan zen gauez. XX. mende hasieran, kabalen (behi, zaldi, ardi, txerri..) kontrabandoa eta autokontsumorako salerosketa nagusi zirenez, baliteke batez ere gauez aritu zirela lanean kontrabandistak. Hala ere, kontrabandoko merkantziak eta eskaera dibertsifikatu ahala, eta Urrezko Garaiari begira, baliteke kontrabandoa gau lanera ez mugatu izana (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 28).

Hasteko, azpimarratzekoa da mendiko arrisku edo herriko errealitatearen arabera, kontrabando taldeak antolatzeko erak aldatzen zirela. Nafarroako mugan, hots aztergai dugun Piriniotako zonaldean, kontrabando taldeak egin ohi zen. Gehienetan 10-12 gizon arteko taldeak izaten ziren, eta gazteak, 20 urte ingurukoak, edo gazteago ere (BRASSAC, 2014: 61). Mendian ibiltzeko, gida edo gida bat bidaltzen zuten aurretik, bidea miatzeko. Honek ez zuen zamarik eramaten, baina bere atzeko kontrabandistek bai. Atzekoak, beraiek, pareka ibiltzen ziren, bata bestearen ondotik, eta pare bakoitzaren artean distantzia bat mantendua zen. Karga material ezberdina zeramaten eramaleek: hasieran zirenak gutxien kargaturik joaten ziren, badaezpada paketeak bota behar baziren aduana ikustean, ahalik eta galera gutxien izateko. (ARBURUA, 2011: 160-163) Hasierako giak arriskuren bat sumatzen zuenean, abisu bat egiten zien atzekoei, gehienetan, txistu bidez. Adituenean diote txituaren arabera kontrabandista ezagutzeko gai zirela gehienak. Maiz gerta zitezkeen honelako egoerak, besteak beste, salatzaile batek guardiari kontrabandisten posizioak salatu ondoren. Eskapatzerakoan, aurretik adostu leku batean topatzen ziren berriro kontrabandistak (BRASSAC, 2014: 62)

Gia ez zen beti gizakia izaten: batzuetan txakurrak hezten zituzten horretarako, mendian erreperioak hartzeko eta guardia usaintzeko. “Baserritan zakurrek espioi lanak

egiten zituzten” omen garaian, zaunkaka hastean guardia usaintzerakoan (Ibidem: 160). Mandoren bat ere erabilia izan zen gia lana egiteko: leku batera kargarekin iristen erakasten zitzaion, bertan deskargatua izateko eta etxera itzultzeko bakarrik. Hala ere, erran gabe doa aduanak ere txakurrak bazituela kontrabandisten usaintzeko heziak. hori dela eta, estrategia ezberdinak asmatu zituzten *gau lanaeko* parte hartzaileek guaren txakurren urruntzeko. Besteak beste, biperra eman ohi zuten medietan urrats bakoitzean erortzeko eta usaimena trabatzeko, edo beroaldian ziren txakur emeak haiekin eramaten zituzten garderen txakurrak haiekin egoteko. (Ibidem: 160-163)

Dena dela, kontrabando lana ez zen mendira mugatzen: bertara joan aurretik ere, herrian bertan, hasten zen gaueko prozesua. Baserritan “abisuak” emanak izaten ziren gauerako expeditioari begira, maidireen bidez. Eman dezagun, leihotik maidire zuria bazen zintzilik, bide librearen seinale zen, hots, karabinerorik ez zela. Mezu berdina pasa ohi zen etxeetan argia pizturik uztean. Trapu zuriak maiz elkartzeko seinalea ere ematen zien kontrabandistei. Hori ikusita, bazekin non eta noiz elkartu. Zortziak aldera elkartu ohi ziren neguko ordutegian, eta 10ak aldera udan, beranduago iluntzen duenez. 2 trapu zuri zintzilik bazeuden, ordea, mezua bestelakoa zen: goizeko hiruak aldera ematen zen hitzordua. Azkenik, trapu beltza izan ohi zen seinale txarrena, guardiaren presentziaz informatzeko. Biltzeko, gehienetan, beti toki berdina izaten zen. Aldaketarik egon ezker, zuzenean etxeetara joan behar zen abisatzera, gaizki ulertuak eta zepoak ekiditeko. (Ibidem: 161-162)

Erran beharra dago, kontrabandista guztiek ez zutela rol berdina izaten prozesuan zehar, eta lan banaketa bat existitzen zela haien artean, hierarkizazio bat. 3 kontrabandista maila existitzen ziren: herri bakoitzeko kontrabanda taldearen buru⁸ bat zegoen piramidearen goiko aldean. Honek, kontrabanda taldearen nagusi izango zena hautatzen zuen. Nagusia, gehienetan, taldearen kide ohi bat izaten zen, lehen langile kontratatua zena. Eta hirugarrenik, beraz, taldeko kide guztiak zeuden, herriko nagusiak kontratatuak erta nagusiak manatuak, pioi moduan. (Ibidem, 163). Gutxi batzuk bakarrik abandonatu zuten baserriko lana eksklusiboki kontrabandoari dedikatzen: gehienek, kontrabandoa bigarren diru iturri bezela erabili zuten baserriko lanaren ondoan, krisiari aurre egiteko. Kontrabandoaren historiaren lerro handiek maiz izkutatu ohi digute kontrabandisten artean gertatzen ziren inegalitateak eta

⁸ Sareetako nagusiek askotan beste lan bat zuten, eskaparate legal gisa. Mugan asko “Bentta” izeneko borda ohi batzuk zituzten lan ofizial gisa. Etxe legalak ziren, ostatu-denda modukoak, baina mugan zirenez, askotan erabiliak ziren kontrabandoko produktuak erosteko edo gordetzeko (ARBURUA, 2011:142).

abusuak. Nahiz eta kontrabandoak baserritarrak lagundu ahal izan dituen krisiari aurre egiteko, hala zer dion Iruritako (Nafarroa Garaia) lekuko batek kontrabandoaren inguruan: “4 pertsona soilik aberasten ziren kontrabandoaz (nagusiak), eta ibarretik kanpo inbertitzen zituzten haien irabaziak. Taldeko nagusia bakarrik aberastu ohi zen, ondotik Iruñean espekulatzeko irabazitakoarekin. Gu, beste kontrabandista txikiok, haien prostitutak ginen. Dirua irabazi bezain pronto gastatzen zuten”. (PERALES DIAZ, 1998: 131-133).

Ipar Euskal Herrian ere, kontrabandista handien sareak existitu ziren, “artisautzatik industrializatu” zuten pertsonekin (OSPITAL, 1982: 29). Asko haien artean saretu ziren eta nafar mendietatik haratago hasi ziren kontrabandoan, Bidasoa aldeko errepide nagusiak erabiliz. Maiz aseguru eta banku handien babesa izaten zuten haien jarduna aurrera eramateko (Ibidem: 29).

Beraz, Pirineotako menditan kontrabandoak antolaketa berezia izaten zuen arriskuak ahalik eta ondoen ekiditeko. Honek kontrabandisten arteko banaketa bat zekarren, lan banaketak ekarri hierarkizazio bat, alegia.

4. Kontrabandoaren eragileak eta harreman sozialak

4.1: Kontrabandisten perfila eta genero banaketa

Nor izan ziren Nafarroako kontrabandistak? Dokumentu ofizialei, hots, atxiloketa dokumentuei erreparatuz gero, ez zaigu perfil zehatzik agertzen. Dena dela, ahozko iturriek eta garaiko protagonistek kontrabandistaren irudi zehatzagoa lortzea permititzen digute.

Gizonak izan ziren mendiko kontrabandista gehienak. Mendebaldeko Piriniotan, gehienak baserritarrak ziren ofizioz, kontrabandoa praktikatzen zutenak bigarren diru iturri gisa eta autokontsumorako. Hala ere, Nafarroako kontrabandoko XX. mendeko protagonistak hauek izan baziren ere, garrantzitsua da azpimarratzea kontrabandoak eramandako merkantzia zein antolaketa ezberdinak izan dituela historian zehar, eta beraz, kontrabandisten perfila bera aldatu egin dela (PERALES DIAZ, 1998: 129). Nafarroan izandako kontrabandisten kondenak landu ezker, gizonen presentzia masiboa baieztatua da: 1936ko atxiloketetan, oso emakume gutxi agertzen da. Atxilotu emakume kopurua apur bat igotzen

da kontrabandoaren Urrezko Aroan, aktibitatearen areagotzearekin eta lan esku behararekin, baina oso urria geratzen da gizonezkoei konparatuta. Badirudi 1945-1961eko boom-ak sortu lan esku horren beharrak kontrabandista geroz eta gazteagoen kontratatzea ekarri zuela, 1942 urtetik, kontrabandisten adinaren apaltze bat igartzen delako. (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 26-27).

Emakumeen lekuari doakionez, emakumeak ez ziren aritu mendiz pakete pasatzen, gehienak baserriko logistika lanetan ibili zirelako. (ARBURUA, 2011: 156) Hala ere, badakigu gutxi batzuk aritu zirela gizonen ondoan kontrabandoan ere, baina menditik kanpo. Kontrabandoaren Urrezko Aroan hasi ziren lehen emakumeak atxilotuak izaten Nafarroan, batez ere Iruñea bezelako hiritan, 1940 urtatik aurrera. Izan ere, asko geldituak izan ziren geltokietan edo kotxez Nafar menditatik sartu produktuekin. (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 26-27). Orohar, emakume gehienak ez ziren kontrabandista beizik eta espioi. Herritik ibiltzen ziren bazterrak zaintzen eta informazioak biltzen (PERALES DIAZ, 1998: 132). Ospitalek aipatzen duenaz, kontrabandistei informazioak emateko, neska gazte asko ezkondu ziren aleman edo aduanetakoekin (OSPITAL, 1982: 76-77).

1929 urteko Kontrabandoaren Aurkako Legeak (Espainiakoak) argiki adierazten du “zozoa, eroa, eta 9 urte azpikoa” ez direla erruduntzat joko. Honen bidez, badakigu haurrak ere atxilotu zituztela kontrabando lanetan edo honi lotuta (ORTEGA NOGUERA & ZABALZA GARATE, 2000: 26-27). Haurrak ez ziren zuzenean kontrabando lanetan ibiltzen mendian, baina laguntza paraleloa eskaini ohi zuten, batez ere, abisuak pasatzean. Baserritara joaten ziren gazteei abisatuz non eta noiz hartu paketeak. Nerabeek, berriz, kontrabandoa praktikatzen zuten. Kontrabandoan aritzeak beste maila bat zekarrela zioten orduan: kontrabandoan aritzen zen gaztea ez zen gehiago haurra eta heldu mundura salto egiten zuen. Haurtzarotik helduarora pasatzeko erritua bezela ikusia zen kontrabandoa garaiko gizartean. Garaian, mugatik 30 kilometrotara bizi ziren 14-15 urteko nerabe asko kontrabandoan sartuak omen ziren. (ARBURUA, 2011: 155-192)

4.2: Boterearekin harremana: boterearen ordezkariak, zigorrak, gatazkak

Kontrabandista eta estatuaren autoritatearen arteko harremanak gatazkatsu eta konplexuak izan dira euskal kontrabandisten eta frantses zein espainol polizien artean.

Orohar, 2 mekanismo eraiki ditu estatuak kontrabandoa kontrolatzeko: legeak eta gorputz poliziala. Gerra Zibilaren ondotik, Piriniotan gogortu egin zen kontrabandaren aurkako errepresioa, batez ere 1945-1961 bitartean. Legeekin hasteko, kontrabandoaren aurkako lehendabiziko legea 1830 urtekoa da eta azkena 1982koa. Kontrabandoaren areagotzearen arabera, lege korpusa ere egokituz joan da urteetan zehar. Guk aztergai ditugun urteetan, hots, 1936-1961 urte bitartean, milioi bat pezeta gorako kontrabando harrapakinak delitutzat joak ziren, eta hortik azpira, infrakzioztat. Gorputza polizialari doakionez, Gerra Zibila garaitik Urrezko Aroa arte, Aduanak kontrolatzen zuen Frantziaren aldetik muga eta hegoan Guardia Zibilak. Erran beharra da 1940 urtea arte Carabineiroak⁹ zirela hegoan, baina urte hortan integratuak izan zirela Guardia Zibilaren barne (PERALES DIAZ, 2003: 104-114).

Gorputz polizialarek zainketa batez ere gauean zentratzen zuten, *Gau lana* mendian eta gauez egina baitzen Nafarroan. Horretarako, postu finko bat hautatua zen, bertatik inguruak zelatzeko. Kontrabandistak bertatik iragaiten baziren, “Alto, Guardia Civil!” edo antzeko oihuekin jakinarazten zuten beraien presentzia. Prozesu berdina erabiltzen zuten frantsesek. Gehienetan, kontrabandistek ihes egiten zuten bertan utziz beraien merkantzia. Horregatik, Nafar Piriniotan oso arraroa zen pertsonen atxilotzea, askotan produktuak bakarrik errekuperatzen zirelako. Gertatu izan da kontrabandistaren bat atxilotzea lortzea, baina horrelakoetan, kontrabandista txikiak izaten ziren, autokontsumorako ari zirenak, gehienak kabala edo janariarekin. Kontrabandista profesionalen eta sare buruen atxilotetak, ordea, oso arraroak izaten ziren eta atxilotuak izanez gero ere, isuna pagatu eta berehala libratzen ziren (Ibidem: 118-120).

Atxilotutako kontrabandistak tribunalaren aurrera eramanak ziren epaituak izateko. Beraien zigorra indarrean zegoen kontrabandaren aurkako legearen arabera zen. Kontrabandoaren Urrezko Aroan, adibidez, merkantzia kentzen zitzaien eta multa ematen Nafarroa Garaian. Gainera, kontrabandistak salatzen zituen ere saristatzen zuen legeak garaian. Hori dela eta, kontrabandisten arteko salaketa eta leihakortasun asko egon dira une hauetan (Ibidem, 121-122).

⁹ Horrelak deituak ziren bizkar gainean zeramatzaten armengatik. 1829 urtean sortu ziren, Karlistadekin kontrabandoa garatu zelako asko. Karabineiroekin gatazka asko izan ziren Nafarroan, batez ere Baztanen (PERALES DIAZ, 2033: 110-112).

Bestalde, maiz Guardia Zibila/Aduana eta kontrabandisten artean akordioak egiten ziren, gorputz poliziala erosiz korrupzioz. Izan ere, garaian polizia lanak oso gaizki pagatuak izaten ziren, batez ere Nafarroa Garaian (Ibidem: 124-126). Dirudienez, korrupzio gehiago egon zen hegoaldeko gorputz polizialean, hauek zituztelako lan baldintza txarrenak eta soldata eskasak (OSPITAL, 1982: 16). Polizia kide asko konturatu ziren kontrabandoari esker dirua errazki lor zitekeela. Hori dela eta, sosaren truk, askotan uzten zituzten kontrabandistak igarotzen edoguardiaren posizioa abisatzen zitzairen. Tratu hauek batez ere eginak ziren mugako herrietan aspaldi presente ziren poliziekin, herritarrek ezagutzen zituztenekin. Gertatu izan da guardia berriagoekin tratua egin eta trahizioak izatea, Orbaizeta edo Larrasoña bezelako herrietan adibidez, zeinetan kontrabandistak hilda agertu ziren, akordioa eginik ere. Hau guztiarekin, mugaldero nafar herrixketan estatuaren autoritatearekin izan zitekeen giro txarra aipatzen dute bertako biztanle askok. Hala ere, herriko biztanleen artean eratu elkartasuna ere azpimarratzekoa da, batez ere, gorputz polizialari aurre egiterakoan. Maiz guardien erridikulizatzeko joera izan da kontrabandisten artean. Adibidez, “mendizorri” deitzen zitzairen Aezkoan guardiei, haiek ulertu ezin zuten kode bat sortuz. (PERALES DIAZ, 2003: 124-126).

Orohar, erran daiteke Nafar Piriniotako “Gune Beroan” aurrera eramana izan zen kontrabandoaren aurkako errepresioa ez zela nahi bezain eraginkorra izan, iparreak zein hegoan. Hasteko, kontrabandistak bazuten abantaila bat Espainiatik etorritako Guardia Zibilek edo frantses Aduanek ez zutena: bertako mendien ezagutza. Hori dela eta, atxiloketak oso arraroak ziren eta harrapatuak izan ezker, aukera gehiago bazuten eskapatzeko. Bigarrenik, gorputza polizialaren antolaketa eskasak eta soldata txarrek gorputz polizialaren korrupzioa zekarten. (Ibidem: 123).

4.3: Kontrabandoaren onurak eta alde txarrak

Onera edo txarrera, baina ezin uka kontrabandoak bere marka utzi duela mugako nafar herri txikietan, ipar zein hegoan. Partaideek artean, honen aurkako edo aldeko iritzi asko aurki ditzakegu gaur egun oraindik.

Lehendabizi, kontrabandoaren eragin ekonomikoak asko aipatuak dira. Bi Nafarroaren arteko gau lanak diru iturri gehigarria suposatu zuen krisian zegoen baserri

sistemaren aurrean. Askok diru gehiago irabazten zuten kontrabandoan laborantzan baino. Gainera, kontrabandistentzat ez ezik, emakume eta haurrentzat ere sosa lortzeko aukera izan zen, bigarren planoko lanekin (PERALES DIAZ, 1998: 132-133). Adibide zehatz batekin ilustratzeko erranak, Viers-ek Aldude ibarreko kasua aipatzen du. 1946 urtean, 6-7 pertsona kabitzeko egina zen etxeetan maiz 10 bat bizi behar izaten ziren. Horrekin, askotan ez zen nahikoa lortzen etxean bertan bizirauteko eta orohar, ibar oso pobrea izan zen Aldude, kontuan hartuz gainera hiritik urrun dagoela eta gaizki komunikatua. Dirua lortzeko, neska asko joan ziren Parisera lanera eta asko Amerikara ere. Kontrabandoa pobreziari aurre egiteko lehenengo tresna izan da kasu honetan. Kontrabandoz eramanak ziren Aldude ibarreko baserriko kabalak Nafarroa Garaira, Iruñea arte. Bertatik, fruituak, ardiak edota ardoa sartzen ziren ibarrera. (VIERS, 1951: 280-283). Hau guztiarekin, ondorio ekonomiko positiboak izan zituen kontrabandoak baserriaren krisiari eta biztanleen exodoari aurre egiteko (OSPITAL, 1982: 9).

Ekonomiari doakionez, aurkako iritziak ere plazaratzen dituzte askok, soilik sare buruak aberasten zirela adieraziz. Hemen ere adibide bat emategatik, Baztango lehenengo kontrabandisten diotenaz, kontrabandoa ez zen soluzio ekonomiko bat izan ibarrean, nagusien aberasteaz aparte, pertsona askok hala ere ibarretik alde egin zutelako Urrezko Garaia amaitzerakoan. (PERALES DIAZ, 1998: 133).

Mendebaldeko Piriniotako bi Nafarroen artean dauden herritako lehenengo kontrabandisten lekukotasunetan oinarrituz, Perales Diaz ikerleak kontrabandoaren aurka izan daitezken lau alde negatibo bildu ditu. Lehenik, bertako informanteen arabera, ofizio tradizionalak galera ezagutu zuten kontrabandoarengatik. Garai batez kontrabandoa emankorra zen eta honengana jo zuten gazte askok, laborantzako lanbideak baztertuz. Bigarren puntu ahul bezela, harreman sozialen atomizazio aipatzen da, hau da, kontrabandisten sareen arteko lehiak, slaketek edo gorputz polizialaren presentaiak sortu giro txar eta mesfidantza mugako nafar herri txikietan. Hirugarrenez, kalte fisikoak pairatu zituzten kontrabandista askok karga astunengatik, eta istripu zein heriotz batzu ere gertatu izan dira gau lanean zehar. Azkenik, kontrabandoa euskal balore tradizionalen aurkako ekintzatzat jotzen dute askok, basoa eta gaua etxea eta familiaren antitesia bezala ikusiak izan baitira euskal mitologia eta iruditegian (PERALES DIAZ, 1998: 134-135).

4.4: Kontrabandoarekiko kontzientzia eta herritartasuna

Kontrabandoa ongi edo gaizki zenaz jardun dute luzaz askok eztabaidan. Aipaturiko euskal balore tradizionalen apurtzaile bada ere, badirudi onarpen orokor bat lortu zuela XX. mendean zehar, batez ere, mugaren bi aldeetan zegoen herritartasun sentimentuari esker.

Hasteko, kontrabandoa pekatu den edo ez, hori izan da auzia luzaz mugaldeko euskal gizartean. Nahiz eta gau lanak irudi txarra eman hasiera batean gauean eta leku arriskutsuetan egina delako, badirudi zabaldu ahala kontrabandoa demokratizatu eta banalizatu egin dela Nafarroan. Garaian, “Kontrabandoan aritu eta ez kontzientzia arazorik izatea normala zen. Nola izango zuten elizgizonek beraiek ibiltzen baziren. Bai. Hainbat apaiza kontrabandista izanak ditugu, bai kostaldeko herrietakoak baita mendi aldekoak ere” (ARBURUA, 2011: 157). Gainera, Aldude ibarreko apezten sotanak ere Elizondotik ekarrarazten zituzten kontrabandoz. Egoera bera ondo laburbiltzen du Ospitalek bere erranetan: “Badirudi kontrabandoa denetan delitua dela, Euskal Herrian ez ezik” (OSPITAL, 1982: 9).

Arburuaren ustez, kontrabandoa egiterakoan ez zegoen kontzientzia txarrik, inposatutako mugak berak moralki ez duelako baliorik mugako biztanleengan. Izan ere, Piriniotako zonaldea erabili zuten Frantzia eta Espainiako estatuek, beraien muga bertan finkatzeko artifizialki, bertako errealitatea kontuan hartu gabe. Mugako biztanleek muga errespetatzen dute zigorren beldurrez, baina moralki ez dira inplikatuak sentitzen. Bertako biztanleen aurka doa mugaren ideia printzipioan bertan, beraiek bi aldeetan egiten dutelako bizitza, muga kontuan hartu gabe. Horixe komentatzen dio Arburuari Berako lekuko batek: “Gure ardiak harat-honatean ibiltzen dira. Alde hontan jan eta bertzean ere. Beraiek zer dakite toki bati Frantzia deitzen diotela eta bertzeari Espainia?” (ARBURUA, 2011: 23). Antzekoa gertatu ohi zen gizakiekin ere: muga ez zutenez aintzat hartzen, egoeraz baliatu dira ekonomikoki kontrabandoarekin dirua ateratzeko, sekulan kontzientzia arazorik izan gabe (Ibidem: 23).


Erran gabe doa euskara izan zela kontrabandoan erabili hizkuntza nagusia, pobrezian zegoen nafar mugaldeko baserritar asko ez zirelako eskolarizatuak, eta beraz, etxeko hizkuntza soilik menperatzen zutelako. Aterabide bakarra izan zen askorentzako ere euskaraz lan egitea. Eman dezagun, Aldudeko ibarreko pertsona askok ez zekiten frantsesik, beraz

euskaraz lan egiteko eta beraz, bizirauteko bide bat izan zen beste aldeko nafartarrekin aritzea. (VIERS, 1951: 283)

Hau dena jakinda, erran daiteke inposatu muga lerroa bera ez zenez ontzat hartzen, ez zegoela kontrabandoa egiterakoa kontzientzia arazorik. Gainera, lan mota hau euskaraz egina zenez nagusiki, herritartasun mota bat eratu zen bi aldeetako kontrabandistengan, mugaren alde batetik eta bestetik harat-honatak normalizatuz eta inposatutako arauak apurtuz.

5. Baxe Nafarroatik Nafarroara: lekukotasunak

Azken atal honetan, kontrabandoaren inguruko lekukotasunak biltzen joango gara, aztergai ditugun 1936-1961 urteen arteko jardura ulertzeko. Kontrabandista izandakoak edo hauen hurbilekoak galdezketatu ditut gehien bat. Horretarako, gehien erabiltako lau pasabidetako kontrabandoa ulertzen saiatuko gara. Itsasita dagoen mapan (4.irudia) kokatu ditut Behe Nafarroan mugaldean aktiboen izan ziren zonaldeak, esate baterako: Baigorriko ibarra, Aldudeko ibarra, Arnegi herria eta Ezterenzubi/Iratiko basoko zona. Errandako ordena segituz, hegoaldean, leku hauekin kontaktuan ziren batez ere kontrabandoa egiteko: Baztan ibarra, Esteribar/Erro bailarak, Luzaide herria eta Orbaizeta. (PERALES DIAZ, 2003: 115)



4. irudia: Bi Nafarroen arteko pasabideak gorritz markatuta. Iturria: MC2 rando.

5.1: Baigorri eta Baztan ibarrak

Aztertuko dugun lehen zonaldetik hasteko, Baigorriko ibarra eta Baztan ibarraren artean kontrabando asko egon zen XX. mendean. Zonalde honen ikertzeko, Albert eta Pakita Parachu bikotearengana jo dut. Baigorri bailarako Bidarra (Behe-Nafarroa) mugako herrian

bizi dira. Albert bertakoa da sortzez, baina Pakita Beartzunetik dator, Elizondoko (Nafarroa Garaia) auzoa. Albert bera ez, baina bere familia kontrabandoan ibilia da garaian. Bien errealitateei esker, mugaren alde bateko eta besteko informazioa lortzea ahalbidetu dit.

Albertek baieztatu didanaz, bide bat baino gehiago zegoen muga zeharkatzeko. “Bakoitzak hurbilena zuena”. Baigorri herrikoek errazago zuten Izpegiko lepoa zeharkatzea, baina Bidarraikoak gaur egun abandonatua den Aritzakun herrixkatik pasatzen ziren Urritzate lepora heltzeko, eta handik Erratzu edo Arizkunera (Nafarroa Garaia). Gainera, kontrabandistek zehazki bazekiten nora iritsi: aurretik hitzartuak ziren mugaren beste aldeko kontrabandistekin, haiek merkantziak hartzeko leku zehatz batean, erreleboan (Albert eta Pakita Parachuren elkarrizketa, Bidarrin, 2022/04/23).

Nor ziren kontrabandistak Baztan eta Baigorri? “Nornahi” bikotearen arabera, “gazteak gehien bat. Karga eramateko gorputza behar zen”. Mugako herriko etxe guzitan ba omen zegoen gazteren bat hortan sartua. Hala gertatu zen Beartzunen ere Pakitak dionaz: “Gazteak aitamen etxean lanean ari ziren baina bazuten sosa erraz kontrabandoarekin, laborari etxe txikiak baitira Beartzunen. Erraz errekrutatzen ziren kontrabandistak; ene lagunak ene lagunak dira, gaur lana baldin badut proposatzen dizut (...) mugak berak nahi du zu kontrabandoan aritzea” (Albert eta Pakita Parachu, 2022).

Kontrabandisten arteko hierarkizazioa ere baieztatu didate. Hala dio Albertek: “Lan bat bezala zen. Baziren nagusiak eta langileak. Nagusiak hautatzen zuen bere burua terrenoan, behar zen konfiantza irabazi horretarako. Elizondon baziren kontrabandista handiak, famatuak, Aldude ibarrean ere. Kontrabanda buruek tratuak egiten zituzten eta gazteek gauzak pasatzen, jornal batendako”. Gerta zitekeen kontrabandista sareen artean lehiakortasuna izatea ere: “Konkurantea beti txarra da”. Beste lanbide batekin estaltzen omen zuten kontrabandistek lan ilegala, denda edo animale saltzaile lanekin, adibidez. Bere bizilaguna kontrabando buru zela gogoratzen da Pakita: “Ez zen gau lanean ari, baina gibeledko horietarik zen (...) Gu laborari etxe txipi batekoak ginen. Egun batez hara, ene aitaxi hil zen 82 urtetan eta meza rgin zitzaion apez batekin, hil kutxaren gainean mantal bat ezartzen zen, beltza, hitsa zen, urrezko apaindurak hautsiak zituen, tristeza zen... Eta hortik laster hil zen kontrabandista hura eta harek bazituen hiru apez meza emaitako, mantal beltz dirdiratsua, jostura ederrekin eta ziri lodi batzuk kutxaren itzulian”. “Meza behar zen pagatu” gehitu du Albertek (Albert eta Pakita Parachu, 2022).

Kontrabandoko beste partaide eta kodeen berri eman didate ere, lan honetan aipatutako berdinak, alegia. Mihise txuria ematen zen bidea libre zela adierazteko, eta aurkakoan, urdina. Haurrek abisuak ematen zituten etxe batetik bestera. Emakumeak, berriz, *espion* izendatuak ziren: lekuak miatzen ibiltzen ziren. Haiiek ikusten zuten ea bidea libre zegoen, gero haurrak abisatzeko edo mihiseak aldatzeko (Albert eta Pakita Parachu, 2022).

Denetarik eraman ohi zela gogoratzen dira biak. Gaur egungo burtsari konparatu diote kontrabandoa: merkatuan balio zuenaren arabera eta alde batean zein bestean arrakasta zuten produktuen arabera erosten zituzten kontrabandistek produktuak, gero eramateko. Gerra Zibilean txokolatea eramaten omen zen asko hegora, “Espainia pobretua” gelditu zelako. Hegotik iparrera, ordea, animaliak, kobrea, botoiez bete zakuak eta mahoi telak eramaten ziren asko, “(...) garaian jostun asko bazelako, laborarien jantziak egiteko” (Albert eta Pakita Parachu, 2022).

Pertsonekin egin kontrabandoaz hitz egin dugu ere luzaz, eta honen fama txarrak galdetu diet. Pakitaren arabera, jende asko baliatu da muga zeharkatu behar zutenen sufrimenduaz dirua egiteko: “Hortako gaizki ikusiak ziren jendeen kontrabandistak, anitz burla izana zen erraten zenez, oraiko etorkinak bezala, sosa dena kendua, jendea utzia ontzitan (...) egun batez gure etxean bi lagun agertu ziren, gure aita eta amak eman zien ilar gorri salda, jendeak zirela eta gose den jendeari ez zela sosik hartu behar. Mugalariak erran zieten muga pasatua zutela, eta ez zen egia. Gure etxetik 4-5km baziren mugara”. Hegotik iparrera jende asko etorri omen zen Gerra Zibiletik edo Francoren diktaduratik ihesean, baita portugaldar asko ere, lan bila. Iparretik hegora, aldiz, batez ere Bigarren Mundu Gerratik ihesi etorri hegazkin gidariak, juduak eta militante politikoak aipatu dituzte (Albert eta Pakita Parachu, 2022).

Orohar, gorputz polizialarekin nahiko harreman onak zirela errateko ados dira biak. Oso gazteak omen ziren Guardia Zibilak Elizondon, eta Andaluzia bezelako euskalde pobreetatik etortzen ziren Euskal Herrira. Frantzia aldekoak ere ez ziren hemengoak eta urrunetik etorriak ziren gehienak. Haien korrupzioa baieztatu didate biek ere, “sardina lata” batzuk jatea baino sinpleago zelako maiz kontrabandotik dirua lortzea (Albert eta Pakita Parachu, 2022).

Amaitzeko, kontrabandoaren Urrezko Aroaren amaiera baieztatu dit Albertek: “60ak ta gero gutxitu zen: amaitu zen, balioa galdu baitzen, ekonomiaren hobetze bat izan baitzen garai hortan Francorekin. Kontrabandoak ez zuen gehio balorerik. Urte horiek eta gero ere izan zen ono, gauzak pasatzen zirenak, kabalak adibidez, edo urre pasa eta sos pasa. Diskretuago egina izan den kontrabanda izan da, eta ez ziren segurrenik urte txarrenak 80tik aurrera” (Albert eta Pakita Parachu, 2022).

5.2: Aldudeko, Esteribar eta Erroko ibarrak

Aldudeko ibarrak Erro eta Esteribar ibarrekin praktikatu zuen kontrabandoa gehien, nahiz Baztanekin ere harremanak izan, eskala txikiagoan. Zonalde honen historia ikertu dut sarean dauden lekukotasunei esker.

Urepeleko hiru anai galdezketatu zituzten ahotsak.eus webgunean gaiaren inguruan: Domingo, Joanes eta Xanpier Etxebarren, hiruak hilda gaur egun. Hiruak gaueko lanean ibiliak ziren garaian. Diotenaz, denak ibiltzen ziren garai batez kontrabandoan herrian. Haiek ere, herriko zaharragoei segika hasi ziren, Ameriketara joan ez zirenen bide bakarra zelako. Urepeleko kontrabandistak Kintoatik iragaiten ziren gehienak (AHOTSAK, 2009).

Produktu asko eramanak zirela adierazten dute hiruek: “Puska frango, negozio anitz bazuten”. Besteak beste, kobrearen eta kabalen kontrabandoa aipatzen dute. “Ez zen beti ber lekura eramaiten” merkantzia, lehenagotik adosten ziren hegokoekin. Garra garaian, paketeak eramanak ziren hegora, baina ez genekien zer bazen barnean”. Gauaz iragaiten ziren Kintoako oihanetik, “kontrabandisten bideetatik”. Aro txarrenekin ere joan behar ziren mendira sare buruek agindurik. Haiek zituzten gazteak kontratatzen, pasak antolatzen eta pagatzen (Ibidem, 2009).

Pertsonen kontrabandoa ere izan zen Kintoan. Gerra Zibila garaian hegokoak etorri ziren mugalariekin iparraldera, eta ondotik portugesak, lan bila. Xole Aire, gaur egungo Urepeleko alkateak honen inguruko anekdota bat kontatu dit: “Ba omen zen 12 urteko neska gazte bat, gaur egun Iruñean bizi dena. “Mugalari” deitzen zuten, eta iñor ez zen dudatzen pertsonak laguntzen zituela muga zeharkatzen. Iruñean hasten zuen ibilbidea, bertatik Eugira joateko. Eugitik Kintoako Palla Bentara joaten zen, eta Pallatik Urepelera. Batez ere euskal nazionalistak eta komunistak lagundu zituen Gerra Zibilean” (Ibidem, 2009).

Aldude herrian, dibisa kontrabandoa existitu zen, eta baziren familia espezialistak, bakarrik hortan ari zirenak, Garaziko bankuekin konplize. Izan ere, peseta zegoen Espainian eta Frantzian frankoa, beraz kalibratu behar zen. Orai desagertuta den Garaziko leon Inchauspe bankua omen zen negozioaren buru. Schengen eta gero berez kontrabandoa amaitu zen, baina pezetarenak iraun zuen oraindik, euroa etorri arte. Jendea oso kezkatua omen zen gazteriarentzat Aldudeko ibarrean dibisaren kontrabandoa amaitzean. “Kezka zuten ea zertaz biziko ziren euroa eta gero, ainitzek ez dakite zer egin kontrabandoaz aparte. Biziki pobrea zen Aldude beraz kontrabandoa egitea ez zen aisia, bizitzeko beharra baizik” (Xole Aireri eginiko elkarrizketa, Urelen, 2022/04/15).

5.3: Arnegi eta Luzaide herriak

Arnegi (Behe-Nafarroa) eta Luzaide (Nafarroa Garaia) herrien artean kontrabanda mugimendu asko egon ziren XX. mendean zehar. Honen berri hartzeko, Luzaideko gasolindegiko jabeengana jo dut, Peio eta Elena Goñi, aita alabak. Peio Luzaideko Gainekoleta auzoko etxe batean jaio eta zortzi semeetarik bigarrena zen. Guardia Zbilaren kuartela zegoen garaian Gainekoletan. Kontrabandoan ibilia da bere gaztaroan, 14 urterekin eskola uztean, gero, gasolindegian lan egin aurretik (Peio eta Elena Goñiri egindako elkarrizketa, 2022/05/06a).

Batez ere, garaiko anekdotak kontatu dizkit Peiok, bere garaiko kontrabandoari lotuak. Elenak ere kontrabando berantiarragoa ezagutu du, aztergaitzat dugun garaia pasata. Negozio asko egiten omen zen garaian Luzaiden, ondo antolatuta eta hierarkizatua. Herriko batzuk negozioen buru ziren, influentzia asko omen zuten. *“La dueña del negocio era de Setoain y tenia una bodeguita (...) todos los caserios venian por vino ahi.”* Ardoa eramaten zuten bertatik astoen gainean Luzaide arte. Alkol asko sartzen omen zen bertatik Frantziara, alkol puroa batik bat, gaztarekin batera (Peio eta Elena Goñi, 2022).

Izan ere, produktu basikotatik hasi ziren kontrabandistak baina gero kontrabandoak bolumena hartu zuen. *“Traiamos de todo”* azaltzen du Peiok. Dionaz, Iparraldetik Hegora egiten zen kontrabando handiena Gerra Zibilean, paketeak eramanez. Baina gero, *“Después de la Guerra Civil, se pasaba de todo (...) puntillas, pintalabios.. todo lo que aquí no había. Alimentos básicos también, como café o harina”*. *“Chaqueta de querro”* delakoak ere

pasatzen omen ziren egunaz, gainean jantzita eramanda. Holako paltoak ikusita, aduanak galdetu ohi zuen nondik zetorren. Gezurrak asmatzen zituzten holakotan *“Viene de Baiona”*. Kontrabandoa hori zen azkenean: aduana zerga saiestea, eta ez zen soilik gauaz egiten beraz Luzaiden. Ganadoaren kontrabanda ere eman zen ibarrean, baina gutxiago: nagusiena produktua zen (Peio eta Elena Goñi, 2022).

Emakumeek kontrabandoan izan zuten lekua ere aipatu didate, batez ere Frankismo garaian. Ibarrean erraten da kafea emakumeen kontrabandoa zela. Hauek ez ziren mendian aritu baina beste era batez. Otobus batek Luzaide Garazi linea egiten zuen Franco garaian. eta kaferik ez zen hegoan. Soineko lodien azpian godetzen zuten Garazitik ekarritako kafea (Peio eta Elena Goñi, 2022).

Guardiaren korrupzioa Luzaiden ere iragan zen. *“Los guardias cobraban, y así no veían”*, erran dit Elenak. Luzaiden bertan, lau Guardia postu zeuden, eta Arnegin azpian, poliziarena. Guardia asko Espainia hegotik etorriak ziren eta gaizki pagatuak ziren. Asko hemengo neskekin ezkondu ziren gerora, *“con hijas de contrabandistas”* dio Elenak irriz. alabekin ere. habia 4 puesto Luzaiden, azpian polizia (Peio eta Elena Goñi, 2022).

Bailaran oso famatua den anekdota batekin segitu du Elenak. *“Hay una historia que se cuenta en muchos sitios, la de la bici. En realidad no se cual es el real pero había alguien que pasaba en bici todos los días delante de la guardia. Saben que está haciendo contrabando pero no saben de que. Muchas veces le habían mirado toda la bicicleta sin encontrar nada. Años después, un guardia jubilado le pregunto: “A ver, que pasabas? El contrabando donde lo pasabas?” Y la cosa es que todos los días, pasaba una bici”* (Peio eta Elena Goñi, 2022).

Kontrabandako prozesuari doakionez, gauza asko Garazi aldean erosten zituzten gero hegora saltzeko. Frantziati etorritako gauza asko Iruñea arte eramank ziren Luzaidetik. Arnegi da Luzaide ondoko iparraldeko herria eta hortik joaten ziren Garazira. Horretarako, batek bidea zaintzen zuen lehenik joanda, ezer eramank gabe. Argiarekin seinalatzen zuen bidea libre bazen. *“Después sabían los intermitentes como ir”*. Elenaren arabera, *“había un truco mucho más fácil: el perro. Teníamos un perrito que se llamaba Pinto (...) los guardias tenían también un perro. Si ladraba, había guardias”*. *“El perro alarma”* gehitu du Peiok, *“nunca nos ha fallado”* (Peio eta Elena Goñi, 2022).

Arnegi herriaz aparte, Lasa (Behe Nafarroa) herriarekin ere harremanak zituzten Luzaidetarrek. Lasako gizon batek pertsonak bakarrik eraman zituen bere bizitza guztian, Luzaidetik pasaz. Lehenik juduak, baina gero portugesak, aurkako norabidean. pertsonen kontrabandoari lotutako anekdota tristeak ere izan dira Luzaiden, batzuk hilda aurkituak izan ziren adibidez. *“Muertos de frío. Venían de España a Francia”*. ETAren garaian errefusiatuak ere pasa ziren, baina orduan agresiboagoak ziren carabineroak, bati tiro egin zioten ere (Peio eta Elena Goñi, 2022).



5. irudia: Arnegi eta Luzaide arteko muga, 1950 urte inguruan. Iturria: Euskal Herria lehen webgunea.

5.4: Ezterentzubi eta Orbaizeta herriak

Ezterentzubiarekin amaitzeko, Antton Lukuren lekukotasuna bildu dut. Gaur egun antzerki idazle bezela ezaguna bada ere Euskal Herrian zehar, Garazira iritsi zen 18 urterekin Ezterentzubin erakasle izateko. Bera iritsi zeneko, jada amaituta zegoen aztergaitzat dugun garaia, baina hor jardun duten kontrabandistaz inguratuta pasa du denbora. Historia erakasle gisa jardun duenez, bere lekukotasuna garrantzitsua dirudit, jakinda gainera, gaur egun ezterentzubiako kontrabandista gehienak zendu direla. Ahotsak. com webgunean, ezterentzubiako Michel Curutchet kontrabandista ohiaren lekukotasunarekin sakondu dut Anttonena, lehen mailako informazioekin aberasteko (AHOTSAK, 2008)

Michelek guk ikertzeko dugun garaiaren amaiera aldean hasi zuen bere aktibitatea, 1955-1982 bitarte. 19 urterekin hasi zen kontrabandoan aitari segika, artzai lanak ez zuelako nahikoa ematen. Michel bezala gazteak ziren kontrabandistak. “Kargek 25 kilo inguru pisatzen zutenez, behar zen gaztea izan horrentzat, eta mendia untsa ezagutu”. Lukuk dionaz.

Ondo asko laburtu du Michelek garaiko kontrabandisten egoera: “beti pobre, beti berdin bizi”. Lehenik mendiz eta oinezko kontrabanda egin zuten. “Gauaz beldurrez, ur eta lohi artean, ez zen biderik orain bezala. 66an egin zen lehen bidea”. Bideak etortzearekin, kamioiez egiten hasi ziren (Ibidem, 2008).

“Ezterentzubin denak kontrabandista ziren”, Lukuren arabera (Antton Lukuri egindako elkarrizketa, 2022/05/07a). “Ohitua izan behar zen kabalekin, oihanean”. Bat dator Curutchet ere honekin: “ez dakit zehazki baina etheen erdia” ari zen kontrabandoan” (AHOTSAK, 2008).

Ezterentzubin, Luzaiden ez bezala, batez ere kabalak eramanak ziren. Produktu batzuk ere noski pasa ziren muga honetatik, “erlojuz beteriko zakuak edo alkol puroa” aipatzen ditu Anttonek adibidez (Antton Luku, 2022). Curutcheten esperientziaz, 7-8 zaldi batera pasatzen zituzten, gehiago baziren arriskutsua bihur zitekeen. Zaldiak eta ardiak “beheiti” joaten ziren, hegotik iparrera beraz, aldiz txerriak “goiti” (AHOTSAK, 2008). Ardiak azpira joatea ez da kasualitatea Lukurentzat, ardiaren kontrabandoak balio izan duelako” artaldeetan arrazen kontserbatzeko, artaldea arraberritzeko”. Eman dezagun, “Ardi latsa beste aldetik etorria zen iparrera artaldeak berritzeko, xaxi ardia aldiz, hemengoa da, ez zen ekartzekorik” (Antton Luku, 2022). Txerriak zailak omen ziren eramateko “arrabotsa eta usaina” zirela eta. Frantzia zehar erosten omen zituzten kabalak sareetako nagusiek, baina bere ustez berek zuten “arriskua hartzen bidea eginez, ez nagusiek”. Bidea egiten zuenari *Peon* (pioi) deitzen zitzaion Ezterentzubin. Michel “peon” zen eta beste peonekin ari zen lanean. “Gehienez, 6-7 gizon biltzen ziren, baina askotan, 3-4rekin nahikoa zen (...) 24 zaldirentzat 7-8 gizon behar ziren (...) baina Ardiekin sinpleago zen: 120 ardirentzat 3 pertsonekin nahikoa zen” (AHOTSAK, 2008).

Hierarkizaizoari begira, lukuren arabera, 3-2 kontrabandista bando baziren garai batez Ezterentzubin bertan. “Bidartiarrak (Bidarte etxeoak) ziren Ezterentzubin buru. Horiek

garaziko zaldi saltzaile batentzako ari ziren lanean, sare guzia bere esku zen. Hori zen bere eskaparatea kontrabandoa ezkutatzeko” (Antton Luku, 2022).

Curutchek Pasabide asko ezagutu ditu garaian Ezterenzubitik hegora iragateko: Iratiko oihana, Errozate mendia, Iupile, Iurri.. Orbaizetara iristen ziren gehienak, hau baitzen hegoko lotura nagusia, baina baziren bestelako herriak ere, Garralda edo Burguete bezala (AHOTSAK, 2008). Lukuk dionaz, “ez zen gauero leku beretik pasa behar, aldatzen zuten. Orbaizetarrekin osatzen zuten sarea: lehenagotik adostuak ziren eta bazekiten nora joan. Biziki lagunak ziren bi herritakoak, familia bezala. Ezterentzubiko euskalkia ere ikasia zuten. Aketzera zen beraiena berez” (Antton Luku, 2022). Curutchetek baieztatzen du lehenagotik adostuak zirela hegokoekin “kabalak leku zehatz batera eramateko eta sosa hartzeko (...) ez zen lotura asko egiten une hortan: “bonjours, bonjour” eta kito. “Ez zen irrikirik. Gero egiten ziren loturak, merkatuetan, batez ere Garazikoan. Han adosten ziren hitzorduak. Kontuz ibili behar zen guardek ere bazekiten han ikusten ginela” (AHOTSAK, 2008).

Aduana korruptoak ezagutu ditu Lukuk, “kargak lurrera, gizonak eskapa” oihukatzen zutenak mendian kontrabandista harrapatzerakoan. Michelek dio guardak herri guzitan bazirela garaian: Eihelarren, Garazin..”Bagenekien gutxi gorabehera postuak non zituzten”. Ezterentzubiko eskolan zuten kuartela, baina korrupzioa ez izateko, Garazira mugitu zituzten (Ibidem, 2008). Lukuren arabera, Arnegin erran ohi zen “Biziki goxoak [zirela] hegoaldeko guardak, errexak erosteko”. Frantsesak aldiz hobeki pagatuak zirenez, ez hain errazki erosten eta biziki nazionalistak zirenez, maiz euskalduden kontra egiten zuten. Baina orohar, “gatazka larri gutxi egoten zen gorputz polizialarekin, nahiz eta omen “errazkiago tiratzen” zuten carabineroek (Antton Luku, 2022).

“Kontrabandoa ez zen ezer, jendearena, beste kontu bat da”. Hara zer erran zion Lukuri garaian Ezterentzubiko alkateak, diru asko egiten zela adierazteko. Berriro ere, batez ere portugesak pasatu ziren mugatik. Bigarren Gerra mundialean ere jende pasa izan zen Ezterentzubin Lukuk dionaz, baina oso gutxi hitz egiten da oraindik pertsonen kontrabandoaz herrian. Mezuak ere pasatzen ziren nazismoaren bizikletako burdinezko egiturari. Izan ere, “zone occupé” izendatu zuten naziek muga guztia, lurralde kontrolatzeko. Maiz neskek eramaten zuten bizikleta, susmo gutxiago izateko (Ibidem, 2022).

Haurrak ere igortzen ziren mendira bazterren ikusteko. Haurra “telefonoa zen”, Lukuren arabera. Abisuak ematen zituen. Emakumeei doakionez, “Aljeriako gerran, ez en mutikorik, gerlan baitziren, beraz neskek leku zentralagoa hartu zuten kontrabandoan. Menditako borda zaintzen ibili ziren ainitz, bertan ematen ziren eta hitz ordu asko. 15 egunez egon zen neska gazte bat elurrarekin bordan kokatuta, eta uste zuten hilik aurkituko zutela. Bi aste beranduago bertaratu eta, beti bizirik zihardun” (Ibidem, 2022).

Curutchetek baieztatzen du 1992an bukatu zela kontrabandoa, Shengen espazioaren instalazioarekin. Geroztik “meza kantatu bezainbat isil bada kontrabandoan”, hots, ezin da oraindik dena kontatu (AHOTSAK, 2008). Anttonen ustez aldiz, “Balentria anitz” izan da kontrabandisten partetik ere, irudia desitxuratuz, baina haien arteko “estima, eta errespetua” azpimarratzen du (Antton Luku, 2022).

6. Ondorioak eta gaiaren inguruko balorazio pertsonala

Lan honen ondorioekin amaitzeko, maiz literatura lanetan desitxuratua edo kontrabandista eta mugakideek beraiek mistifikatua izan zen kontrabandoaren gaia aztergaitzat genuen, Behe-Nafarroa eta Nafarroa arteko Piriniotan, Gerra Zibiletik kontrabandaren Urrezko Aroa amaitu arte, 1936-1961 bitarte alegia.

Kontrabandoa, *estraperloa*, defraudazioa.. maiz nahasi eta elkar elikatu diren nozioak dira, baina kontrabandoaren kasuan, erran daiteke aduana zergen saiesteria izan dela Nafarroako menditan, bide paraleloak hartuz, batez ere mendi eta oihanetan zehar. Judizialki nozio bakoitza bereizi eta definitu bada ere zigortzeko gisan, erran daiteke kontrabandistek beraiek denari “kontrabandoa” deitzen ziotela. Ez ikusiak izateko, gauean egiten zen jarduera zen gehienetan, *Gau Lana* izena ere eman diona. Hala ere, nahiz eta kontrabandoaren gehiengoa Nafarroako eremu honetan gauez egin den, egunaz egindako kontrabandoa ere existitu da, Luzaideko adibidean bezala.

Kontrabandoa ezin da ulertu mugaz aparte. Mugak existitzen diren gune orotan kontrabandoa existitu daiteke. Bi Nafarroen mugaren kasuan, Erromatarren garaitik existitzen da muga, beraz kontrabandoa. Dena dela, muga hau ez da beti finkoa eta ofiziala izan. Erabat

definitua izan arte hainbat tirabira iragan dira Nafar Piriniotan, aztertu dugun Kintoako kasuan bezala. 1856ko Baionako Ituna itxaron behar izan da bi Nafarroak ofizialki eta muga arbitrario batekin zatituak egoteko, bertako biztanleen ohitura historiko eta errealitateei muzin eginez, muga naturalki zeharkatzeko ohitura barne.

Dena dela, Karlistaden porrotarekin, aduanak Frantzia eta Espainia arteko mugara mugitu ziren XIX. mendean. Produktu askok aduana zergak pairatuko dituzte. Hori dela eta, XX. mendean kontrabandoa areagotu egin zen. Ikertutako dokumentazioan, ematen du batez ere 1936-1961 bitarte eman zelako kontrabando gehiena, nahiz eta lehenago eta geroago ere izan, baina eskala txikiagoan.

Urte hauetan zehar, hiru garai ezberdin destaka daitezke kontrabando aldetik. Lehenik, Gerra Zibileko kontrabandoa izan zen, 1936-1961 bitarte, zeinetan batez ere hegoko jendearen beharren asetzeko paketeak garraiatu ziren ilegalki iparretik. Bigarren garaian, Bigarren Mundu Gerra eta Frankismoa iragan ziren, lehena Behe-Nafarroan eta Bigarrena Nafarroa Garaian, 1939tik 1945 bitarte. Aduanaren dokumentuak ikertu ezker, nabari da harrapakin gehienak autokontsumorako eta biziraupenerako bideratuak zirela lehendabiziko garaian, kabala eta jateko asko aurkituak zirelako. Bigarren garaiari doakionez, apur bat aldatuz doa tendentzia, produktuak dibertsifikatzen doazelako, merkatu aberatsago bat sortuz bezela. Hirugarren kontrabando garaia, ordea, kontrabandoaren Urrezko Aroa da, Perales Diaz ikerleak *Boom* ere deitu duena. Garai honetan Nafar Piriniotako kontrabandoak izaugarritzko loraldia ezagutu zuen, bi aldeetatik denetarik eramana zelako, ez bakarrik autokontsumorako baina etekin ekonomikoa ateratzeko helburuz ere. Izan ere, kontuan hartu behar dugu aztergaitzat dugun zonaldea, hegoa zein iparra, baserri eremuak zirela, mendikoak, isolatuak eta oso pobreak gehienetan. Baserriko lanetaik ezin zen familia guztia bizi. Etxea zaharrenari uzten zitzaion eta besteen beste soluzio bat aurkitu behar zuten, apaizgoa edo Ameriketara joatea bezala. Kontrabandoa, honen aurrean, lan osagarri bat izan zen baserriko lanaren ondoan, eta permititu zuen gazteen ihesa txikitzea. Urrezko Aro honek bere amaiera izan zuen 60 hamarkada hasieran, Francoren ekonomia irekidurarekin eta industrializazioaren hasierarekin Nafarroa Garaian, kontrabandoaren beharrezkotasuna kenduz.

Orohar, hiru kontrabando mota bereizi daitezke. Lehena, eta gehienik egina izan dena produktuena litzateke. Sinplifikazio kontuak direla eta, animaleen kontrabandoa ere kategoria

honetan sartuko dugu. Erran bezala, kontrabando mota hau hasieran ez zen behar ekonomikoentzako egiten baina biziraupenerako, gatazka eta krisia garaietan bizitzeko beharrezkoa lortzeko. Gerora, ordea, kontrabandoa merkatu paralelo eta ilegal batetara mugatuko da, zeinetan edozein produktu erosi zitekeen, aduana zergarik gabe eta bizirauteko beharrak erostera bultzatu gabe. Identifika daitekeen bigarren kontrabandoa pertsonena da. Hau egin zen *mugalari* deitu kontrabandista bereziekin. Hauek pertsonak pasatzen zituzten batez ere gerretatik edo mehatxutik ihesean. Gerra Zibilean eta Francoren diktaduran militante politikoak ekari zituzten hegotik iparrera eta geroxeago portugesak lan bila zetozenak eta Salazaren diktadurarengandik ihesean. Iparretik hegora pasa ziren Bigarren Mundu Gerran juduak edo nazismoak mehatxatzen zituen militanteak. Azkenik, informazioen kontrabandoa ere existitu da Nafarroako mugan, nahiz eta oraindik gaizki ezagutua eta dokumentatua den. Hau ere, pertsonena bezala, batez ere liskar garaiean egina zen.

Kontrabandoa jarduera oso antolatu eta hierarkizatua zen. Sare bat bezela antolatzen zen mugaren bi aldean artean. Alde bakoitzean bandoka antolatua zen. Bando bakoitzak bere nagusia zuen, denaren kudeatzailea. Honek ez zuen gau lanik egiten baina berak zuen merkantzia erosten eta mugaren beste aldeko sare buruarekin negozioa burutzen. Honen azpitik zetorren terrenoko hautatuko zuen liderra, eta lider honek kudeatu beharko zituen peon edo pioi deituak, kontrabandistak alegia. Terrenoko nagusia eta pioiak joaten ziren mendian gauaz, orden jakin batean. Lehenik gia joan ohi zen kargarik gabe, bidea irekitzeko eta guardiak bazirenez ikusteko. Gia gehienetan pertsona zen baina gertatu ohi zen txakur bat ere izatea. Bere ondotik joaten ziren karga eramaleak binaka eta bikote bakoitzaren artean distantziarekin.

Kontrabanditaren perfilaz hitz egiteko, Nafarroan Gau laneko kontrabandistak mutil gazteak ziren, asko 20 urte baino gazteagoak, paketeek 25 kilogramo inguruko zama zutelako. Mugako herritakoak izan ohi ziren, bertako bide txikiak ongi ezagutu behar zirelako gauzez eta ihes egin behar bazen. Gehienek beste lan bat zuten kontrabandoaren ondoan, ehuneko handi batek laborari edo artzai. Honek abantaila ematen zien kabalen ezagutzan ere kontrabanda egiteko. Ongi laburbiltzen du egoera Albertek: “Denak ez ziren on kontrabandista izateko. Batzuk bazuten talentua, besteek ez. Horrela da bizia” (Albert eta Pakita Parachuren elkarrizketa, Bidarrin, 2022/04/23). Emakumeak, iturri ofizialen arabera, ez ziren asko aritu mendiko kontrabandoan, esaterako, batere ez. Luzaideko kasuan soilik aipatua izan zait emakumeen egunezko kontrabandoa, arropen azpian produktuak gordetuz

garraio publikotan. Dena dela, bestelako rola izaten zuten. Espioitza lana haien kontu zen, hots, herri inguruan bazterren miatzea eta kodeen ematea argi edo mihiseekin, guarden presentziaz abisatzeko kontrabandistak. Haien emakume izaeragatik, maiz susmo gutxi izaten zuten gorputz polizialarengandik. “Alemanak edo Guardia Zibilak erraz erosi eta hainganatu zituzten emakumeek”, Lukuren arabera (Antton Lukuri egindako elkarrizketa, 2022/05/07a). Haurrak, ordea, etxe batetik bestera abisuak esateko erabiltzen ziren, eta batzuen, mendiko leku batzuen zaintzeko ere, beste aukerarik ez zegonean.

Hegoan Guardia Zibilak eta Iparrean Aduanak osatzen zuten gorputz poliziala kontrabandoa zelatzeko. Legeek ere balio izaten zuten kontrabandoa zigortzeko, eta indarrean zegoenaren arabera aldatzen zen kontrabandisten zigorra. Gehienetan, kontrabandistak ihesean joaten zirelako, bakarrik merkantzia harrapatua zen. Zigor zabalduena isuna izan ohi zen, oso gutxi joan dira kartzelara kontrabandoa egiteagatik. Orohar, gorputz poliziala oso erraza zen erosteko, gutxi pagatuak zirenez, erraz onartzen zutelako dirua kontrabandoaren aurrean begiak isteko.

Garaiko eragileen artean, kontrabandoaren aurkako edo aldeko iritzi asko egon daitezke, izan aspektu ekonomiko, judizial, edo moraletik. Hala eta guztiz ere, zihur dena da kontrabandoa ez dela delitu bezela ikusia izan euskal jendartearen, muga ez zenez aintzat hartzen, ez zelako kontzientzia arazorik.

Amaitzeko, Behe-Nafarroa eta Nafarroa Garaia kasuan, lau pasabide izan ziren nagusiak: Aldudeko ibarra/Esteribar eta Erro, Baigorriko ibarra/Baztan, Luzaide/Arnegi herriak eta Ezterenzubi/ Orbaizeta herriak. Erran gabe doa lau pasabide hauetan alde batetik bestera igarotzeko bide ezberdinak zeudela. Lau eremu hauetako 11 pertsonen lekukotasunak kontuan hartuta, konturatzen ahal gara lanean zehar errandako informazio teoriko gehienak errepikatu direla praktikoki mugako herrietan. Hala ere, nahiz eta kontrabandea egiteko erak eta honen inguruko bizipadak berdintsuak ziren, kontura gaitzke tokian tokiko espezifikazioak izan direla merkantzia mailan. Eman dezagun, Luzaide eta Arnegi artean produktuak ziren nagusi, Ezterenzubin kabalak, eta Alduden dibisarekin negozio handia egin da.

Kontrabandoa tristeki beharrezkoa izan den aktibitatea izan da gure mendi isolatu eta pobreetan, krisiak mundua jotzen duenean, baserri eremuak bi aldiz azkarrago jotzen

dituelako. “Eskerrak hemen *frontera* bazela”, Pakitak adierazi duen gisara (Albert eta Pakita Parachuren elkarrizketa, Bidarrin, 2022/04/23). “Tristeki beharrezkoa” diot, nahiz eta ezinbestekoa izan den bizirauteko eta gazteen “odolustea” ostopatzeko, ez duelako ibar isolatuen arazoa konpondu, baizik eta arazoa estali, kontrabandoak funtzionatzen zuen bitartean behintzat. Kontrabandoarekin eskala txikian gure lurretan errepikatu dira mundu handian aurki daitezken zapalkuntza berdinak, esate baterako, lanaren banaketa inegala, soldata arrakala, klase interesen diferentzia.. Alde hortatik, askotan glorifikazio toxiko bat egin zaio jardunari. Noski, kontrabandistaren XIX. mendeko kontrabandistaren irudi erromantikoak asko eragingo du hortan, baina XX. mendeko kontrabandisten artean ere badira errealitate gordina edertzen saiatzen direnak.

7. Bibliografia

Idatziak

- ARBURUA, R. (2011): *Gau lana, kontrabandoa Bidasoa aldean*. Irun: Alberdania.
- BRASSAC, P-J. (2014): *Les grandes heures de la contrebande dans les Pyrénées: Le commerce interlope sur la frontière franco-espagnole*. Romorantin: CPE Editions.
- ESCOBEDO ROMERO, R. (2000): "El contrabando y la crisis del Antiguo Régimen en Navarra (1778- 1808)", *Príncipe de Viana*. 221.zenbakia: 695-730.
- ETXEBERRIA, M. *et al* (1985): *Kontrabandoa eta Euskal Herria*. Donostia: Gordailu, historia saila.
- GOYHENETCHE, M. *et al* (2005): “Le cycle de dépression agricole en Pays Basque Nord” eta “Chapitre VII: Pays Basque Sud: Fin de l’Ancien Régime et abolition des institutions forales”, *Histoire générale du Pays Basque: Le XIXè siècle: 1804-1914*. V. tomoa. Donostia: Elkar argitaletxea.
- ORTEGA NOGUERA, R; ZABALZA GARATE, G. (2000): “Navarra, tierra de contrabandistas; una aproximación histórica (Guerra Civil y posguerra)”, *Gerónimo de Uztaritz aldizkaria*. 16. zenbakia: 9-32.
- OSPITAL, A. (1982): *Sur les sentiers de la Contrebande en Pays Basque*. Donostia: Elkarlanean.

PERALES DIAZ, J-A. (1998): “Fronteras y contrabando en el Pirineo Occidental”, *Antropología del bosque y de las sociedades de montaña*. Iruñea: Eusko Ikaskuntzako III. jardunaldiak.

VIERS, G (1951): “Le Pays des Aldudes”, *Revue géographique des Pyrénées et du Sud-Ouest*. 22. tomoa, 4.zenbakia: 260-284

Webguneak:

- AHOTSAK, UREPELE (2009):

<https://ahotsak.eus/urepele/hizlariak/domingo-etxebarren/>

(2022/03/24ean kontsultatua)

- AHOTSAK, EZTERENZUBI (2008)

<https://ahotsak.eus/ezterenzubi/hizlariak/michel-curutchet/>

(2022/05/10ean kontsultatua)

- ARCHIVES DÉPARTEMENTALES DE SEINE-ET-MARNE (2022): “Le rationnement alimentaire pendant le Seconde Guerre mondiale en Seine-et-Marne”.

<https://archives.seine-et-marne.fr/fr/le-rationnement-alimentaire-pendant-la-seconde-guerre-mondiale-en-seine-et-marne> (2022/03/04ean kontsultatua)

- BAIONAKO EUSKAL MUSEOA (2022): “La frontière franco-espagnole au Pays-Basque”.

<http://www.musee-basque.com/collections/vie-des-oeuvres/frontiere-franco-espagnole-au-pays-basque/> (2022/03/30ean kontsultatua)

- GRAN ENCICLOPEDIA DE NAVARRA (2022):

http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=7278 (2022/05/12an kontsultatua)

Elkarrizketak:

- Albert eta Pakita Parachuren elkarrizketa, Bidarrin, 2022/04/23.
- Xole Aireri egin elkarrizketa, Urepelen, 2022/04/15.
- -Peio eta Elena Goñiri egindako elkarrizketa, 2022/05/06.
- Antton Lukuri egindako elkarrizketa, 2022/05/07.

Irudien webguneak:

- Portada. Kontrabandistak eta Aduana Bidasoa aldean:

EUSKAL HERRIA LEHEN/ PAYS BASQUE D'ANTAN (2018):

<https://paysbasqueavant.blogspot.com/2018/07/la-contrebande-au-pays-basque-en-avril.html>

(2022/04/28an kontsultatua)

- 1. irudia:

ROBERT AUX BORNES DES PYRRENEES (2014)

<http://robertauxbornesdespyrenees.kazeo.com/pays-quint-quinto-real-kintoa-a120142816>

(2022/04/16an kontsultatua)

- 2. irudia:

EUSKAL HERRIA LEHEN/ PAYS BASQUE D'ANTAN (2018):

<https://paysbasqueavant.blogspot.com/2018/07/la-contrebande-au-pays-basque-en-avril.html>

(2022/05/12an kontsultatua)

- 3. irudia:

GRAN ENCICLOPEDIA DE NAVARRA (2022)

http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=7278 (2022/05/12an kontsultatua)

- 4. irudia:

MC2 RANDO (2017)

<http://www.mc2rando.fr/pyreneesatlantiques/departementpyreneesatlantiquesbnavarre.html>

(2022/05/02an kontsultatua)

- 5. irudia:

EUSKAL HERRIA LEHEN/ PAYS BASQUE D'ANTAN (2018):

<https://paysbasqueavant.blogspot.com/2018/07/la-contrebande-au-pays-basque-en-avril.html>

(2022/05/12an kontsultatua)